

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

86. zenbakia

96ko otsailak 2



San Blasetan murgildurik

4x3-
x2-
x1-

3 filme
errebelatuz
4. goa DOAN

20x25
bat DOAN

15x20
bat DOAN

jaietako errebelatuak

BEASAIN **Goen** FOTO **FOTOETXE** ORDIZIA

Idiazabalgo jaiak



**“KANDELARIO, ELURRA DARIO,
SAN BLASEK ERE LAGUNDUKO DIO”**

*Elurra egin edo ez, jai zoriontsuak izan
ditzagula bai idiazabaldarrok, baita
goierritar guztiok ere.*

Idiazabalgo Udala



**AVICOLA
SAN BLAS, S.L.**

- Arraultz salmenta
- Bertako produktu ona
- 30 urteko esperientzia

Atxu etxea, 27

☎ 80 12 58 (oilategikoa) - ☎ 80 12 27 (etxekoa)

IDIAZABAL



**AMPO S.COOP B.L.
IDIAZABAL Gipuzkoa**

ALTZAIRU FUNDIZIOA

- Moldaturiko piezak.
- Zentrifugaturiko Tuboak.
 - * Aleatuak.
 - * Herdoiltezinak.
 - * Berogaitzak (Errefraktarioak).
 - * Nikel oinarritutako aleazioak.

AENOR-ek onartutako enpresa

ISO 9002 Tel.: 80 14 42 - Faxa: 80 18 62



**AMPO S.COOP R.L.
BEASAIN Gipuzkoa**

BALBULAGINTZA

- AMPO Koperatibak balbulagintzarako duen Dibisioaren merkatal izena: POYAM da.
 - Bertan, 2 "diámetro duten balbuletati 48" arterainokoak egiten dira.
 - Balbula hauek, Petrolio, Petrokimika, Energia, Alumina, Kimika Industrietarako eta Kriogenika Lantegietarako, Industri nahiz etxetarako gas banatzaileentzat egiten dira.
 - Honako etxe hauetaz homologatua: EXXON, TEXACO, AMOCO, CONOCO, DUPONT, B.P., REPSOL, ENAGAS, GAS EUSKADI.
- Tel.: 88 60 50 — Faxa: 88 88 47

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Postetxe-gainean).
Tfnoa: 889612.

Faxa: 882719.
124. posta-kutxa,
20240 Ordizia.

Zuzendaria:
Loinaz Agirre.
Maketazioa:
Mikel Albisu.

Publizitatea:
Josune Agirre.

Erredakzio Batzardea:
Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Joseba Te-
lleria, Ane Martin, Loinaz Agi-
rre eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Iraida Martin,
Gabino Murua, Mikel Apaolaza,
Idurre Eskisabel, Rufino Iraola,
Ramon Lizarraga, Xabier Ur-
teaga, Edurne Ayuso, Edurne
Albizu eta Aitziber Murua.

Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2, Lasarte-
Oria)

Tirada: 5.500 ale. 5.400 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Franko kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼

Lazkaoko beneditarren liburutegia saritua



Beste batzuren artean, Laz-
kaoko beneditarren liburute-
gia saritu du Sabino Arana
Fundazioak. Aita Juan Jose
Agirre da duela 25 urtetik ho-
na bere arduraduna. Lan asko
egin du eta horren errekonoz-
imentua jaso du Aita Juan
Josek. "Nik ez nuen inoiz ere
pentsatu saririk jasotzea, ez
dut sari hori jasotzeko lan
egin", aitortu diru Aita Juan
Josek.

Euskal gaitan espezial-
dua da pribatua, baina aldi
borean irekia den liburutegi
hau. "Liburutegia martxan
jarri aurretik, inguruko es-
kola errekonozitu bakarra
geneukan beneditarretan.
Baina Beasainen Institutua
ireki zenean, erabaki zen
ikastetxea itxi eta liburutegia
jartzea. Ni ausartu nintzen
ardura hori hartzera, baina
Bibliotekonomia ikasteko
baldintza jarri nuen", esan
digu. Bartzelonara joan zen
eta ikasketak bukatu ondo-
ren, Montserrateko liburute-
gian aritu zen, eta hantxe
"drogatu nintzen, baina

droga ona", aitortu du. Ka-
taluniari buruzko atal berezia
zegoela ikusi zuen Montse-
rraten eta han hasi nintzen
Euskal Herriari buruzkoa
egiteko ideia. Euskal Herria-
rekin zerikusia zuen material
(liburuak, aldizkariak, orriak,
kartelak...) guztia biltzen hasi
zen.

Altxor preziatuak ditu Aita
Juan Josek. 'Euzko Deya'ren
bilduma osoa du; Parisen ar-
gitaratu eta Euskal Herriko
berriak ematen zituen OPE-
ren ale guztiak ditu (31 urtez
kaleratu zen); ANV argita-
ratzen zuen 'Eusko Lurra'ren
aleak 20 urtetan zehar bildu
ditu. Guztiak ere, frankis-
moaren garaiko euskal histo-
ria eta politika ezagutzeko
behar-beharrezko materiala.
ETA-sortu zenean, 1959an,
argitara emandako lehen al-
dizkari eta agiriak ere bilduak
dituzte. Ikerlariak eta tesia
egiten ari direnentzat derri-
gorrean bisitatu beharreko
kulturunea da.

Aintzinako zenbait liburu
erlijioso ere gordetzen dira.
Zaharrena, Etxeberri Sara-
koaren 'Manual debozionez-
koa' da, 1669an inprimatua.
4.000 kartel eta 7.000 pegati-
natik gora ere bildu ditu Aita
Juan Josek. "Jendeak horri
ematen dio garrantziarik
handiena, baina hori gauza
berria da. Guzti horrek baino
garrantzia handiagoa du ni-
retzat lehen aipatutakoak",
esan du.

Besteek esana

"Geroztik eta diru gutxiago
dagoela esaten da, eta hori
ez da egia, lehen adina diru
dago, agian zertxobait
gehiago. Zera, duela hamar
urte diru gutxiago egongo
zen Kulturaren, baina dena
estreinatzeko zegoen.
Orain, askoz diru gehiago
egonda, diru horren % 95
bahituta dago, preso. Gauza
berriei aurre egiteko dirua
oso gutxi da".

**Jose Mari Agirrek, 'Ar-
gia'n 96-I-28an**

"Kartelen bilduma
1975ean hasi nintzen egi-
ten, alderdi politikoak le-
galizatu zirenean; 4.000
kartel inguru izango ditugu
gordea eta 7.000 pegatina.
Gaur egun asko jaitsi da
kartela eta pegatinen kopu-
rura eta kalitatea; lehengo
kartelek kalitate hobea zu-
ten, landuagoak ziren".

**Aita Juan Jose Agirrek,
'Egunkaria'n 96-I-24an.**

"Errepideko txirrindula-
ritzak gora egin du; ziklo-
krosak, aldiz, ur geldia-
ren antzera geratu da. Batek go-
ra egiten duenean, besteak
behera. Hala ere, Euskal
Herrian, duen tradizioaga-
tik irauten duela uste
dut.(...) Lasterketak egiteari
uzten badiote akabo ziklo-
krosa".

**Jokin Mujikak,
'Egunkaria'n, 96-I-16an**

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Intereseko Telefonoak

Mutiloa

Udaletxea:800450

Tfno. publikoa:801166

Olaberria

Udaletxea:881434

Eskolak:881232

Castillo Hotela:882011

Tfno. publikoa:881111

Ormaiztegi

Udaletxea:882660

Anbulategia:888432

Segura

Udaletxea:801006

Anbulategia:801919

Eskolak:801775/76

Ospitala:801008

Zegama

Udaletxea:801115

Anbulategia:801306

Eskolak:800042

Zerain

Udaletxea:801724

Medikua:801136

Tfno. publikoa:801183

Errezeta



Nekane Aizpuruk
emana
Gariona okindegia
Beasain

SAN BLAS OPILA:

Osagaiak: Kilo 1 irin, 100 gramo gurin, 300 gramo azukre, 10 arrautza, goilara-kada bat anis esentzia.

Irina, gurina, azukrea, arrautzak eta anis esentzia dena ondo oratu. Rodillo batekin mahai gainean zabaldu eta forma eman. Labean sartu 250 gradutan, kolore piska

bat hartu arte.

6 arrautza zuringoak eta 800 gramo azukre ondo irabiatu edo batitu gogortu arte eta brotxa batekin gainean jarri.

Hozten denean txokolatearekin San Blas izena jarri. Ondo pasa San Blas jaiak!

Bota bertsoa



Alaitz Sarasola
Gaia: Ordiziako
azoka
Doinua: 'Zer da gaur
Donostian'

Artzai, baserritarrak,
asteazkenero
beren produktuekin
datozkigu bero,
eta kalekumeak
horien bezero;
arkume, gazta, porru,
piper txorizero,
bueltan etxera pozik
dena salduz gero (bis).

Zenbait lagun hasi zen
logotipo bila
eta Getxo aldetik
a zer iskanbila,
garaile suertatu da
Abascal abila,
paper eta plastikoz
bada poltsa pila;
azoka(re)n onerako
gertatu dadila (bis).

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumaraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

URBITARTE
sagardotegia



☎ 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Txandaka

Justizia

Urtarrilean egin zen Bilbon Hego Euskal Herrian zinpekoen epaimahaiarekin lehendabiziko epaiketa. Zortzi herritar juje lanean, eta horiez gandi eta goiti --esperimentala, probazkoa baitzen-- hiru magistratuz osatutako tribunala. Epaitu beharrekoa, J.A.G.G., 94ko Urtezahar gauean ustez ezagun bat labankadaz hil zuena.

Gertakari bakarra, delitu bakarra, akusatu bakarra eta justizia ere bakarra. Epaimahaiak, ordea, bi eta epairako aukerak ere beste hainbeste: erruduna ala errugabea. Bikoiztasun horretan, bildu zen herritarren epaimahai eta bildu zen magistratuena, eta eman zituzten epaiak; bakoitzak bat, baina finean bi. Errugabea da J.A.G.G. zinpekoen epaimahaiaren iritziz, baina magistratuz osatutako tribunalak 12 urteko kartzelara zigortu du frogatutaz eman duelako bera izan zela hiltzailea. Justizia bakarra, baina bi buru ageri! Madarikatuko zuen honezkero errudun ala errugabe den ez dakidan J.A.G.G.k epaitu zuten eguna. Izan ere, martxoan egin izan balitz judizioa kalean zatekeen zinpekoen epaimahai osatu zutenen onespenerekin. Hil horretan sartzen da indarren Zinpekoen Epaimahaiaren Legea, eta hortik aurrera, herritarren erabakia izango da baliozkoa.

Espainiako Entzutegi Nazionalak, berriz, plazaratu du Itoizko lanak gertzeari buruzko autoa. Eta oraingoan ere, justizia emakume eder eta itsuaren itxuran azaldu ordez, buru biko munstro agertu! Arrazoiak, lanak etetzea eskatu zuten Itoizko Koordinakundeari eta Aezkoako Batzarrari eman die, baina trukean inola ere ordaindu ezin duten 24.000 milioi pezetako abala eskatuz.

Txapel batekin ezin bi buru estali. Ez eta Justizia andreak ere. Sistema judizialak, Legeak, zuzenbideak... ba ote dute zerikusirik justiziarekin?

Idurre Eskisabel Larrañaga

Inkesta

Zein da zure ametsa?



Leire Viana
15 urte, ikaslea
Beasaingo

Ikasketak ondo bukatu eta gero lan on bat edukitzea. Suitzara, Alpeetara joatea gustatuko litzaidake. Eta ezkondu eta zoriontsu izan.



Asier Prol
15 urte, ikaslea
ordiziarra

Euskadi aske bat ikusteko bizi izatea. Ikasketak bukatu eta lan on bat lortu.



Ainara - Arantzazu
16-15 urte, ikasleak
ordiziarrek

Azterketa garaian gaudenez, azterketak gainditzea. Unai Iturriaga ikusi (Ainarak) eta irla desertu batera joan nire gustuko mutilarekin (Arantzazu).

Bitxikeria

Bitxikeria Aralar ikertzen

Dan Lertxundi gaztea Lizarrusti, Ataun, Txindoki.... aldean ari da 80-100 milioi urte dituzten harriak ikertzen. Batez ere kare-harriak dira. Fosilak aurkitu dituzte harri horietan, *errudista* izenekoak, koralak era askotakoak, meak, itsas-trikuak, txirlak... Garai hartan, Iberia penintsula mugitzen ari zen Europarekiko, eta faila asko sortu ziren. Eguraldia tropikala zen, batz bestea 25 gradutako tenperatura.

Aralar mendiak 100 milioi urte omen ditu. Orain Aralar dagoen tokian itsasoa zegoen. Eta aurkitutako materiala non zegoen jakin nahi dute ikerlariek, zein sakonerratan, eta noizkoa den.

HABE aldizkaritik hartua

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostialera menu bereziak.
Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZA
Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.
On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

LOINATZ

Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



- Ileapaindegia
- Edergintza
- Solariuma

Itxura aldaketa

Nafarroa Etorbidea, 37 ☎ 88 02 97
BEASAIN

OSKARBI

OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 ORDIZIA



Lana

□25 urteko neska euskalduna prest dago etxeko lanak egin, haurrak zaindu edo antzeko lanetarako. Esperientziaduna. 889521 - 886789 (Elena).

□Tabernari edo zerbitzari bezala lan egingo nuke. 18 03 78. Izaskun (gauez).

Salerosketak

□Trabesiazko eski ekipo osoa saltzen dut. Tablak 'Hagan tour carbono', fijasioak 'Sinvretta 404', botak 'Dinasit tour', modelo berria. Kutxillak eta fokak. Behin erabiliak. 180275.

□Abdominalak egiteko aparatua eta korrika egiteko zinta saltzen dira merke. 88 04 61. Elena.

Etxebizitzak

□Goierrin etxebizitza konpartitu batean gela bila nabil. Idatz Beasaingo 50 posta kutxara.

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Otsailak 4, Trapu Zaharra taldearen 'Occident Paradise' kale antzerkia, Kale Nagusian 18:30ean.

Otsailak 9, Akusa taldearen 'Frank V' antzezla-na, Usurbe Antzokian, 22:15ean. Sarrera 600 pezeta.

BERTSOAK

✓ Beasain:

Otsailak 4, bertso-bazkaria Arrano Elkartean Amuriza, Mendizabal eta Egañarekin, 14:00etan.

✓ Zegama:

Otsailak 10, Estitxu Arozena, A. Mendiluze, U. Iturriaga, S. Lizaso, A. Egaña eta A.M. Peñagarikano, Pilotalekuan, 22:30ean.

MUSIKA

✓ Segura:

Otsailak 10, Anje Duhal-

de eta Iparraldeko 'Skunk' taldea, Baratze Pelotalekuan, 23:00etan.

DANTZAK

✓ Segura:

Otsailak 11, 'Primadera' Arbonako Dantza Taldearen saioa herriko plazan, 13:00etan.

ZINEA

✓ Beasain:

Ostirala 2, 'Two much', 22:15.

Larunbata 3, 'Two much', 19:30 - 22:15.

Igandea 4, 'Niño rico', 17:00; 'Two much', 19:30 - 22:15.

Astelehena 5, 'Two much', 19:30.

✓ Ordizia:

Ostirala 2, 'Los puentes de Madison', 22:15.

Larunbata 3, 'Los puentes de Madison', 19:30 - 22:15.

Igandea 4, 'El niño invi-

sible', 16:45; 'Los puentes de Madison', 19:30 - 22:15.

Astelehena 5, 'Los puentes de Madison', 19:30.

Ostirala 9, 'Goldeneye', 22:15.

Larunbata 10, 'Golde-neye', 19:30 - 22:15.

Igandea 11, 'Goldene-ye', 16:45 - 19:30 - 22:15.

Astelehena 12, 'Golde-neye', 19:30.

✓ Legorreta:

Otsailak 5, 'Pulp Fiction', Herri Zineman, 20:30ean.

Otsailak 12, 'Leolo', Herri Zineman, 20:30ean.

HITZALDIAK

✓ Beasain:

Otsailak 9, Beasaingo Gazte Asanbladaren bilera 'Gazteok batera gaztetxea helburu' lemapean, Kimmuak-en lokalean, 19:00etan.

✓ Ordizia:

Otsailak 2, Abiadura Handiko Trenari buruzko

ALKARTASUNA LIZEOA



**Beasaindik
Goierrentzat Herri
Ikastola lantzen**

HAUXE DA ZURE ESKOLA BAILARAKO D.B.H.ko ESKOLA

PUBLIKOA
EUSKALDUNA
DOHANEKO
KALITATEZKO

LOINAZPE

BAILARAKO 12-16 URTE ARTEKO GAZTEAK
ELKARTU ETA HEZIKO DITUEN
DERRIGORREZKO B.H.ko ESKOLA.

**MATRIKULAK: LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN
OTSAILAREN 1etik 20ra.**

hitzaldia, Gaztetxean,
19:00etan.

Otsailak 6, 'Gaztedia,
ezaugarriak eta baloreak.
Eskolaren garrantzia eta
zeregina'-ri buruzko hi-
tzaldia, Barrenan,
19:00etan. Hizlariak: Jexux
M. Mujika eta Mikel Amas.
Antolatzailea: Jakintza
Ikastola.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Otsailaren 2tik 11ra,
Jesus Gonzalezen pintura
eta eskultura erakusketa,
Usurbe Antzokiko Erakus-
keta Aretoan.

Otsailaren 9ra arte, Oli-
via Sanchezen erakusketa,
Aterpe Tabernan.

**Otsailaren 10etik mar-
txoaren 1era,** Pilar Patto-
nen erakusketa, Aterpe Ta-
bernan.

✓ Ordizia:

Urtarrilaren 19tik
otsailaren 2ra, Rosalinda
Pablosen pintura erakuske-
ta Barrenan.

Otsailaren 9tik 23ra ar-

te, Jose Luis de la Iglesiasen
pintura erakusketa, Barre-
nan.

IKASTAROKAK

✓ Beasain:

Otsailaren 7an hasita,
bolillo ikastaroa. Klaseak
asteazkenetan izango dira
17:30etik 19:30ra. Iraupena
4 hilabete. Matrikula 1.500
pezeta hilabeteko. Antola-
tzailea Asmube.

Otsailaren 13an hasita,
'Errenta Aitorpenerako
Oinarrizko Ezagupenak'
ikastaroa. 12 orduko ikas-
taroa izango da. Klaseak as-
teartetan izango dira,
18:00etatik 19:30era. Ma-
trikula 2.000 pezeta. Anto-
latzailea Asmube.

LOINAZKO SAN MARTIN

✓ Beasain:

Otsailak 5: 9:30ean:
Udal Txistulari Bandaren
goizeresia. **10:30ean:** Ko-
fradien desfilea galako
jantziekin, eta banda, txis-
tulari, dantzari eta iruleaz
lagundurik, San Martinen
estatuara iritsiko da bere es-

kaintza eginez, eta ohorez-
ko Aurrekua dantzatzuz.

10:45ean: Komitiba Udal
Batzarraren laguntzaz An-
dra Mari Zeruratuaren pa-
rrokia arte joango da.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Kofradiaren XI.
Kapituluaren ospakizuna
eta ohorezko kofradeen
izendapena Loinazko San
Martin Plazan. **14:30ean:**
Anaidetasun bazkaria Cas-
tillo Hotel-Jatetxean.

18:30ean odolki dastatze
herrikoia, herriko zenbait
lekutan. **19:00etan:** Loi-
nazko Musika eskolako
musika bandaren kalejira.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Otsailak 4, Erniora.

Otsailak 11, Holtzartera
irteera.

GOARDIAKO BOTIKAK

Otsailak 2: Arriola; **3-4:**
Cuesta; **5:** Urbizu; **6:** Ato-
rrasagasti; **7:** Azpilikueta;
8: Jauregi; **9:** Larnaga;
10-11: Jauregi; **12:** Cuesta;
13: Arriola; **14:** Urbizu; **15:**
Atorrasagasti.

Pilotalekuan 2. astez

Bigarren astez, pilotale-
kuan egin zen joan zen as-
teazkeneko Ordiziako azo-
ka. Nobedade handiegirik
ez zen izan. Arkumeak, 310
buru saldu ziren, 410-425
pezetan gehienak. Perre-
txikuetan nikaloak izan zi-
ren; 1.000 pezetan saldu zen
kiloa.

Bertako barazkietan,
Bruselasko azak 200-
250ean saldu ziren; kardoak
200ean; letxuga 50-100ean;
eskarola 50-75ean; patata
40-50ean eta azalora
100-200 pezetan.

Kanpokoetan, aurreko
asteen marrubiak izan bazi-
ren ere, asteazkenean ez zen
batere agertu, eguraldi kas-
karra dela eta. Gainontzean,
pina 275ean kiloak; kiwia
200-250ean; lekak 550-
650ean; kalabazina 250ean.

Arrainetan azkenik, pre-
zioak zertxobait normal-
tzen ari dira Gabon ingurua
pasatu ondoren. Antxoa ki-
loa 850ean saldu zen;
itsas-oilarra 1.950ean; ba-
kailao xerrak 1.200ean; sar-
dinak 640an; txipiroiak
1.230ean; mihi-arraina
1.520-1.780an.

IKASTEK AKADEMIA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Kalitatea eta esperientzia

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5 BEASAIN



Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfnoa: 88 87 02

BEASAIN

JAKINTZA IKASTOLA

2 urtetik- 18 urtetara, ikastetxez aldatu gabe.

Eleaniztasuna: Haur Hezkuntzan, 4 urterik hasten dira ingelera ikasten.

Giza balliabideak: irakaslego iraunkorra eta espezializtuta: orientazio
departamendua, gorputz hezkuntza, musika, plastikako tailerra.

Gurasoen partaidetza: erabakitzeke ahalmena duzu.

Zerbitzuak: jangela, garraioa, haur zainketa goiz eta arratsalde, udako
ekintzak.



Ramon Lizarraga
(Goierriko Objektore
Taldeko kidea)

*“Gizartearen
eskakizunei
jaramonik egin
gabe, 1995eko
azaroaren 15ean
onartu zen lege hau
Intsumisio
mugimenduaren
aurkako beste
errepresio
maniobra bat
bezala aztertu
behar da”*

Onartutako Kode Penal berriak ondo baino hobeto erakusten du, espainiar Parlamentuko alderdi politikoek intsumisioarekiko duten jarrera (PP izan ezik, bere abstentzioa beste arrazoi batzuegatik izan bazen ere). Gizartearen eskakizunei jaramonik egin gabe, 1995eko azaroaren 15ean onartu zen lege hau Intsumisio mugimenduaren aurkako beste errepresio maniobra bat bezala aztertu behar da:

1.- Bi intsumiso mota bereizi nahi ditu: alde batetik, armen zerbitzua betetzeari zuzenean uko egiten diona eta bestetik, objektoretzat onartua izan ondoren, soldadutza justifikatzen eta iraunarazten duen ordezkio zerbitzuari ezetz esaten diona. Aurrekoentzat honako zigor hauek eskatzen ditu: 6 hilabetetik 2 urtera bitarteko kartzela zigorra, funtzio publikoa (estatala, autonomikoa edo tokian tokikoa) betetzeko guztiz inhabilitatzea, eta 10 urtetik 14 urtera bitarteko epean bekak, dirulaguntzak eta mota guztietako laguntza publikoak kentzea; bestentzat, mota bereko inhabilitazioa, baina 8 urtetik 12 urtera bitartekoa, eta 72.000 pezetatik 36 milioi pezetara bitarteko isunak (edo 12-24 hilabete) intsumisioaren ahalmen ekonomikoaren arabera.

Horrela lortzen dute intsumisoak kartzelara ez joatea! (Hau lasaitasuna!) Izan ere aurrekari penalik ez dutenen kasuan ‘askatasun kondizionala’ 2 urtera bitartekoa da. Era berean, mugimendu intsumisioaren batasuna apurtu nahi dute, nahiz eta desobedientzia jarrera bera hartuz justifikaezina den eta gizartearen gehiengoak arbuiatu egiten duen obligazio bati uko egiten dion.

Kode Penal eta intsumisioa

2.- Bestalde, ez dute inondik ere auzitan jartzen soldadutza egotea, zaharkituta, umiliagarria eta antisoziala bada ere; aitzitik, berriro ere ‘behartuta’ sentitu dira desobedientzia zibila zigortzera. Espainiako politikan oso eginkizun heratsaile garrantzitsua betetzen jarraitzen duten interes militar huts batzuen mesedetan. Eta ‘behartuta’ diot ikusi besterik ez baitago zein interes (funtsezko ondasun juridikoak, diote) babesten diren “Demokraziaren” Kode Penal berri honetan; ikusi besterik ez baitago hemen Euskal Herrian etengabe halako gogortasunez pairatzen ari garen eta hain urrun ez dauden beste garai batzuetatik gainerik ezin kendurik jasaten ari garen gaitz militarra.

Guzti hau dela eta, Euskal Herriko gazteek, gizarte mugimenduek, instituzioek, ordezkari politiko, sindikatu eta unibertsitatekoek... guzti guztiok erantzungo diogu askatasunez mugimendu antimilitarista eta intsumisioa deuseztatu nahi duten era berri eta sofistikatu hauei aurre egiteko.

Alde batetik, EUDIMA (Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatea) sortzearen aldeko konpromezua dagoe-neko Euskal Herriko 20 udalek hartu dute (horien artean Zaldibia eta Itsasondo); era honetara intsumisioaren alde lanean ari diren udalek marko amankomun bat izateaz gain, ejerzitoaren aurkako erabaki sendagoak hartzeko aukera ere izango dute. Bestalde, bai administrazioko sindikatuek,

baita unibertsitateetan ere neurri bateratuak hartu behar dira, inhabilitazioei, beka eta diru laguntzak ez jaso ahal izateari aurre egin nahi badiegu; bide horretan ere kontaktu-lanak egiten ari dira. Azkenik, euskal gizarte osoaren intsumisioarekiko elkartasun nabaria, erabateko inplikazioan bilakatzea, intsumisoon eskutan izanik, goazen ba denok elkarrekin Euskal Herriaren desmilitarizaziorantz lan egitera.

Goierriko egoera

(Datuak ondoko orrian dituzu). Azpimarragarria eta salatzekoa da, gaur egun Goierri Gurutze Gorriak (Beasaingo egoitzan) intsumisioarekiko daraman jarrera guztiz insolidarioa eta antisoziala; bertan 60 eragotzle inguruk, soldaduzka ez egiteagatik 13 hilabete derrigorrezko beste zerbitzu bat egitera behartuak daudelarik. Hau dela eta, onartezina deritzogu soldaduzka erorkor bat baieztatu eta Gurutze Gorriko benetazko filosofia eta borondatezko lana oztopatzen duen jarrera hau.

Goierriko Objektore Taldeko azken Asanbladan, besteak beste, Goierriko herri ezberdinen koordinazio handiago baten beharra ikusi genuen; intsumitu goierritarren inplikazioa eta lana ere ezinbestekoa dela, datorren Kode Penal berriaren aurrean indar guztiak beharrezkoak izango direla kontutan hartuz. Beraz, guztion artean Goierriko Udaltxe, gizarte erakunde eta kolektibo guztien artean intsumisioak duen elkartasuna bildu eta militarrenganako desobedientzia bilakatu beharko dugu. Adi egin! Datozen hilabeteotan ekintza ugari eta mobilizazio egunak izango bait dira!

Ba al dakizu?

GOIERRIKO INTSUMITUEN DATUAK. Aurreko orriko artikularen osagarri dira datu hauek. Goierriin guztira 150 intsumitu daude: 50 ordiziarrak, 35 beasaindarrak, 15 lazkaotarrak eta 50 beste herrietakoak. 150 hauetatik 25 epaitu dituzte: 5 ordiziarrak, 9 beasaindarrak, 4 lazkaotarrak eta 7 beste herrietakoak. Hauetatik 4 goierritar izan dira kartzeleratuak. Egun, Aitor Mendizabal Arriarango intsumisioa Martutenen preso dago beste 24 intsumitu gipuzkoarrekin batera, 2 urte, 4 hilabete eta egun bateko kartzela zigorra betetzen.

1995. urtean zehar, Ordiziako Barrera Jauregian asteartero 7:30etatik aurrera biltzen diren bulegotik 20 gaztek, bai soldaduzkari baita ordezeko zerbitzuari uko egin zieten goierritarrek, intsumisioaren bidea hartu zuten.

PRESOAK GOSE GREBAN. Euskal preso guztiak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko, gose greba txandakatuan hasi dira presoak. 15 egunez, Mikel Zumarraga ormaiztegiarra (Iruñeako kartzelan dago), Agustin Cortes ordiziarrak (Logroñon) eta Pilar Gabirondo ezkiotarra (Logroñon) egon dira gose greban. Urtarrilaren 29an Pakito Mujika ordiziarrak (Parisen) hasi zen.

MIKEL OTEGI itsasondotar gaztearen epaiketan EAEko Barne Saila herri ekimen izatea onartu zuen urtarrilaren 24an Tolosako epaileak. Epaiketa uda aurretik egin liteke. Baliteke bi ertzainen senitartekoak ere akusazio partikular gisa aurkeztea.

BELLOTA HERRAMIENTAS enpresak Idiazabalen duen lantokia 96. urte bukaeran iteko erabakia hartu du Patricio Etxeberria Korporazioak. 69 langile kanpoan geldituko omen dira.

ALTERNATIBA DEMOKRATIKOA, "Euskal Herria eta Estatuaren arteko gatazka konpontzeko alternatiba", aurkeztuko du HBk Beasainen, otsailaren 8an, 19:30etan, La Salle ikastetxeko zinean eta Ataunen, otsailaren 9an, 20:30etan, Udaletxean. Batzarrak irekiak izango dira, "zalantzak argitu eta eztabaida piztea" nahi baita.

MIKEL AIZPURU gabirritarra dugu UEUKo (Udako Euskal Unibertsitatea) zuzendari berria. EHUKo Gizarte Graduaten Eskolako irakaslea da.

SASIETA Mankomunitatearentzat izan da 'Biotxu' saria eman dio Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, udaletxe eta Mankomunitate espezialitatean. Sari hau EAEn ingurugiroaren babes eta zaintza lanetan gehien nabarmendu den entitateari eman ohi zaio. Ikastetxeetan urtero burutzen den ingurugiro heziketa kanpaina, material ezberdinen bilketa bereiztua eta birziklaketa (zerbitzu hauetako asko aintzindari dira Euskal Herrian), eskualdeko enpresetan hondakinak gutxitu eta teknologia garbiak sartzeko plana, zabortegei inkontrolatuaren berreskuraketa, etab. izan ditu Jaurlaritzak kon-

tuan sari hau ematerakoan. Industria espezialitatean Beasaingo Estanda Fundizioak aipamen berezia jaso du.



ARTISAU SARITUAK. Hiru artisau goierritar saritu ditu Gipuzkoako Merkatal Ganbarak. Domingo Goiburu idiazabaldar albarda egilea eta Prudentzio Jauregi lazkaotar pelota egilea saritu ditu. Era berean sari berezia jaso zuten, Ordiziako Telletxea sendiko Maria Lurdes eta Jose Antonio anai-arrebek, bizitza osoa eskaini baitie euren sendiak erroskilak eta piperopilak egiteari.

XABIER MENDIGUEREN BEREZIARTUK 'Euskal itzulpenaren historia laburra' argitaratu berri du. "Lehenengo urratsa" besterik ez da egilearena.

JUAN RAMON MENDIA beasaindarrak eskuz binakako Bigarren mailako finala jokatu zuen joan zen igandean, Ariznabarretarekin batera. 22-19 galdu zuten Santi-Agirre-ren aurka.

1915etik

Handizkako eta txikizkako salmenta



resti

HIJOS DE URTEAGA CB

Edariak, esnea,
ikatza, ikatz
begetala,
briketak,
lejiak eta sifoiak

Nafarroa Etorbidea, 15 BEASAIN ☎ 88 09 77

ESKOLA MAPAREN ALDAKETEN ONDORIOZ

Goierriko eskola sistemaren egoera

Haur gutxi izateak eta 16 urte bitartean derrigorrezko hezkuntza sartzeak behartu duten Eskola Mapak aldakuntza bat baino gehiago ekarri ditu, batez ere, eskola publikoetan. Eztabaida eta errekurso ugari aurkeztu dira, baina erabakia hartuta dago. Behin 12 urtez gero Itsasondo, Legorreta eta Zaldibiako haurrek Ordiziara joan beharko dute eta Ataun, Beasain, Gabiria, Idiazabal, Lazkao, Olaberria, Ormaiztegi, Segura, Zegama eta Zeraingoek Beasaina. Publikotik jarraitu nahi izanez gero, Ordizian Urdaneta-Oianguren ikastetxea dago eta Beasainen Loinazpe-Txindoki Institutua. Pribatuek lehen-goan jarraitzen dute. Hori bai, Beasaingo La Salle-San Josek 16 urte bitarteko hezkuntza eskaintzen du eta Ordiziako Milagrosak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza kolokan du.

Herri-eskoletako gurasoek zenbait errekurso aurkeztu dizkiote Eskola Mapa proiektuari. Batetik, haurrak herrian 14 urterarte ikasteko aukera izatea; bestetik, ikastetxean D ereduak bakarrik ematea; eta kezka berezia dago 12 eta 16 urteko haurrak nahastuta ibilteak lekarkeenaz.

Errekurtsoak ez dira onartu, eta hona hemen Goierrik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaz (DBH) eskaintzen duena. Gogoratu, aurre matrikula epea otsailaren 20an bukatuko dela.

● LOINAZPE-TXINDOKI IKASTETXEA (Beasain)

Eskaintzak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak eta Ziklo Formatiboak (azken bi hauek Txindoki Institutuan).

Baliabideak: Irratia, prekonologia gela, argazkigintza gela, informatika, liburutegia, laborategiak, ikusentzunezko tresnak: bideo, proiektagailuak..., Antzizar Kiroldegiko kirol instalazioak.



Zerbitzuak: Jangela subentzionatua eta garraioa dohainik.

Berezitasunak: Irakasle goaren jatorri desberdinak ikastetxe-mota ezberdinen arteko koordinazio lanak erreztu egingo ditu. Inongo zalantzarik gabe, Lehen Hezkuntzako azken etapak estuki loturik egon behar du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarekin; eta honek, berriz, Batxilergoarekin eta Ziklo Formatiboarekin. Lotura hau bermatzeko bailara honetako herri-ikastetxeak eta herri-eskolak eta Txindoki Institutua 2 urtetik 19-20 urtera bitarteko proiektu amankomuna bultzatzen ari gara.

● LA SALLE-SAN JOSE IKASTETXEA (Beasain)

Eskaintzak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

Baliabideak: Laborategiak, guraso eskola, irakurketa eraginkorra, liburutegia, informatika gela, tresna bidezko

aberaste-programa (TAP), ordenadorez lagunduriko heziketa.

Zerbitzuak: Jangela.

Berezitasunak: Gizatalde bat gisa honetan osatua: La Salleko anaiak, Karitateko lekaimeak, irakasle seglarrak, zerbitzu langileak, ikasle-ohi eta gurasoak dira, asmo hauek bultzatzen dituztenak: Ikaslearen formazio integralaren garapenean; kristau balioetan oinarritua; euskal hizkuntza eta kulturaren sustraitua; bakarko lana nahiz taldeakoko errazten dituen metodologia eraginkorra.

● ALKARTASUNA LIZEOA (Beasain)

Eskaintzak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak eta Ziklo Formatiboak. Hau da, 2 urtetik 20 urte arteko irakaskuntza euskaldun eta kalitatezkoa.

Baliabideak: Teknologia tailer gela, teknologia diseinu gela, hezkuntza laborategia, informatikako gela, musika gela, arte hezkuntzako gela, irratia eta bideo tailerra, jardun botanikoa, negutegia, liburutegia, kirol instalazioak...

Zerbitzuak: Jangela eta garraioa subentzionatuak.

Berezitasunak: 2 urtetik 19-20 urte arteko hezketa. Irakaskuntzan esperientzia. Euskarazko irakaskuntza. Irakasle goi mailak eta proiektu berean elkartua. Talde lanean hezia...

● JAKINTZA IKASTOLA (Ordizia)

Eskaintzak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoak.

Baliabideak: Liburutegia, informatikako 2 gela, irratia, 3 laborategi, teknologiko gela.

Zerbitzuak: Jangela, autobusa eta haurren zainketa goizeko 7etatik 9etara eta 16:30tik 18:30ra.

Bereiztasunak: 2 urtetik 18 urtera, dena bertan egin ahal da, ikastetxez aldatu gabe. Euskaraz Bizi proiektua, euskararen erabilera eta kalitatea bultzatzeko. Eleaniztasuna, gure ikasleek 4 urtekin ingeleraz egiten dituzte Haur Hezkuntzako ekintzak eta 12 urtekin frantsesa ikas dezakete.

● URDANETA-OIANGUREN IKASTETXE PUBLIKOA (Ordizia)

Eskaintzak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak eta Ziklo Formatiboak.

Balibideak: Liburutegia, laborategiak, teknologiako gela, informatikako gela, eskolako irrati emisorea, ikusentzunezko gelak, barruko telebista, gimnasioak, musika gela, bideo gelak, tailerrak, psikologa orientatzaile eta logopeda.

Zerbitzuak: Jangela eta garraioa dohanik.

Bereiztasunak: Metodologi berri-tzailea eta aktiboa. Hezkidetzaila.

● MILAGROSA IKASTETXEA (Ordizia)

Eskaintzak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hez-

kuntzako Lehen Zikloa (?)

Balibideak: Liburutegia, informatikako gela, laborategia, ikusentzune-ko gela, psikomotrizitate gela, kirol instalakuntzak, frontoia...

Zerbitzuak: Jangela hurrengo kurtsorako.

Bereiztasunak: Gure ikastetxean talde txikietan lan egiten denez, oso hezkuntza pertsonalizatua dugu eta denok dakigu honek emaitza onak ekar-tzen dituela. Adibide gisa, ekintza guz-tietan dugun partaidetza zabal eta lor-tutako emaitza ezin hobeak. Honekin batera aipatu, baloreetan oinarrituriko hezkuntza eskaintzen dugula eta hau gaur egungo gizartean guztiz garran-tzitsua iruditzen zaigu.

● GOIERRI LANBIDE ESKOLA (Ordizia)

Eskaintzak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ziklo osoa, Batxilergoak, Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak, Garantia Sozialeko kurtsuak, Lanbide Hastapena.

Balibideak: Liburutegia, infor-matikako gelak, DBH eta Batxilergo-rako egokitutako laborategiak, hiz-kuntza laborategia, tailerrak eta abar.

Zerbitzuak: Jangela, garraio publi-koa, era ezberdinetako eskolaz kan-poko ekintzak.

Bereiztasunak: Erreformen 10 ur-teko esperientzia (I.E.E.). D.B.H. bu-rutu ondoren irteera guztiak ikastetxe berean. Entrepresarekin lotura estua. Euskadi mailan antolatutako Hezkun-tzan Kalitate Sistema ezartzeko espe-rientzia piloto baten partaide. Dohain-tasuna, goiz eta arratsaldeko klaseak, eta abar, ikastetxe guztiak bezala.

● SAN BENITO IKASTOLA (Lazkao)

Eskaintzak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bi-garren Hezkuntza, Batxilergoak.

Balibideak: Bi liburutegi, infor-matikako gela, irrati emisora, tekno-logia eta artelan tailerra, 3 laborategi, 2.000 m² kirol instalazioak.

Zerbitzuak: Jangela, garraioa, in-gelera akademia, Trinity College London azterketak, Ingelerako udale-kuak.

Bereiztasunak: 2 eta 18 urte bitar-teko heziketa. D eredua maila guztie-tan. Lazkaon Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza onartua duen ikastetxe ba-karra. Ingelera 4 urtetik aurrera. Hiz-kuntz anitzen lanketa. Giza ekimene-rako hezkuntza. Hezkuntza estilo pro-pioa. Gurasoen partaidetza. Dohanta-suna maila guztietan.

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

2. MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

GOIZTIRI



EUSKALTEGIA

IKASTAROAK	MATRIKULA EPEA	MAILAK
2, 3, 4 eta 5 ordu goizez, arratsaldez eta gauez	Otsailaren 16 arte	Euskalduntze Alfabetatze EGA

INFORMAZIO GEHIAGO

Ordizia: Santa Ana Ikastetxea. ☎ 88 91 74

Beasain: Kale Nagusia, 5-3. ☎ 88 93 40

Lazkao: Elozegi, 16-2. ☎ 88 91 74

Udalak ikasleei ikastaroa subentzionatuko die

“ORDIZIARRAK GERA, EUSKALDUNAK GERA GU” KANPAINA HASI DU HITZAROK Bazkideak gehitu eta elkarteak ezagutaraztea helburu

Aste honetatik aurrera Hitzaro Euskara Elkarteak “Ordiziarrak gera, euskaldunak gera gu” izeneko Bazkide Kanpaina jarriko du martxan. Kanpainaren helburua bazkide berriak egitea da eta, bide batez, dagoeneko 2 urte dituen elkarte hau ordizarrak ezagutaraztea.

Hitzaro Euskara Elkarteak 1994ko apirilean sortu zen eta, geroztik, herrian euskara eta euskal kulturaren aldeko lanean ari dira adin eta aukera politiko ezberdineko 90 bazkide; Hitzarok argi baitauka diferentzien gaineratik guztion euskaltasuna dela euskara aurrera aterako duena.

Osteguneko prentsaurrekoan aurkeztu zuten kanpaina honek elkartearen berri ematen duen hiruorriko edo triptiko bat erabiliko du euskarri bezala, eta bertan jasotzen dira Hitzaroren helburuak, ezaugarriak eta burutu nahi dituen ekintzak. Triptiko hau hainbat etxe eta dendatan, eta kalean jarriko diren mahaietan banatuko da otsailaren 17ra arte.

Bazkideen garrantzia

Hitzaro Euskara Elkartearentzat oso garrantzitsua da bazkide kopuru handi bat elkartearen biltzea, elkartearen helburu nagusia euskararen alde daudenak bildu eta hauen erreferentzia bihurtzea



Urtarrilaren 25ean Barrenan egindako prentsaurrekoa.

delako, dituzten kezka eta nahiak jaso eta aurrera eramanez.

Bestalde, Hitzaro Euskara Elkarteari derrigorrezkoa zaio herriko euskaltzaileen babesa bere eguneroko lana bete ahal izateko; batetik, elkartearen oinarri ekonomikoetako bat bere bazkideen kuotak direlako eta, bestetik, Hitzarorentzat oso garrantzitsua delako euskaltzalerik gehien onarpena eta lankidetzaz izatea, bai lan egin ahal izateko, bai eta elkartearen izaera plurala eta irekia mantendu ahal izateko.

Kanpaina honetan hiru bazkideetako mota bereizten dira: Lantaldeetako partaidetza zuzena, ekintza jakinetarako laguntza eta bazkideetako soila. Norberak erabakiko du bazkide egiteko garaian zenbaiterainoko konpromezua hartu nahi duen Hitzarorekin.

Lantaldeetako partaideek bileretara joan eta ekintzen antolaketan lagun-

tzen dute. Laguntzaile puntualak gauza jakinetarako laguntza behar denean, eta bazkide soilek, berriz, kuota ordainduz eta elkarteari bere onarpena eta babesa adieraziaz.

Kuota ordaintzeko garaian ere, bi aukera eskeintzen ditu Hitzarok: lanean ari direnek 4.000 pezetako kuota ordaindu behar dute urtean, eta langabetu eta ikasleek 1.000 pezeta.

Euskararen egitasmoa

Bi arlotan banatuko du, nagusiki, Hitzarok, bere lana, 1996. urtean. Batetik, haur eta gazteen arloan arituko da, eskolaz kanpoko euskarazko ekintzak antolatuz (bideoa, zinea, tailerrak eta zenbait ikastaro). Aipatu, iaz Ordiziako haur eta gazteen hizkuntz portaerak aztertzeke azterketa sozio-linguistikoa egiten hasi zela elkarteak, eta aurten pentsatzen duela datuak argitaratzea, udalari egin dioten diru eskaera iristen bazaie.

Udalarekin elkarlanean aritzeko asmoa era badu Hitzarok aurtengorako. Honela, euskararen udal ordenantza aprobatazea eta euskara azpibatzordearen sorrera bultzatuko ditu. Esan behar da, duela gutxi burutu duela Hitzarok, Udalaren aginduz, euskararen erabileraren kale neurketa.

Ordiziar guztiak elkartearen parte hartzera gonbidatuz bukatu zuen Hitzarok osteguneko prentsaurrekoa.

 Hitzaro Euskara Elkarteak



IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfn. 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)



Mari Karmen Odriozola. Kazetaria.

Hitzaroan

Ordiziar maiteok:

HITZAROAn bizi garen lekuko, hona hemen nire hausnarketa apal hau:

Hitzak zabaldu arazi zizkigun begiak mundura; maitasun hitzek egin gaituzte gizon-emakume; hitza erabiliz hedatu dugu adiskideen mundua; hitza bitarteko hartuz adierazi ditugu sentipen sakonenak; hitzezko izan dira hartu ditugun erabakirik sendoenak; hitzaren bitartez deskribatzen dugu inguruarekiko dugun atxikimendua.

Adorez egiten dugu hitz bizi-pozak hartzen gaituenean. Hitz jokuen bitartez gara gu bertsolari, olerkari edo esatari. Ez ordea edozein aburuz

egindako hitzak, **Euskara** dugu herri-giltzarri.

Ordiziar guztiok zabal hegoak, luza besoak euskaldun egiten gaituen lokarriari.

Euskarak gurean iraun dezan bultzatzen dezagun **HITZARO**.

Egin zaitez bazkide.



Josetxo Elkorro Arruabarrena,
'Majori' Kiroldegiko
Zuzendari-Gerentea

Begi bistakoa da gizakia bezain zaharra den kirola aldaketa ugari jasaten ari dela azken aldian.

Kirolak rol berriak bereganatu ditu aspaldi honetan. Gizarte harre-

manetarako tresna bihurtu da, baita hezkuntza prozesuaren zati garrantzitsu ere; ongizate eta higiene kontuak ahaztu gabe, noski. Egoera berri honen adibide dira esaterako antolakuntza zein azpiegitura mailan egindako aldaketa sakonak. Guztia kirol jarduna kalitatezko jarduna bihurtu nahian egindakoa.

Zentzu honetan, ezinbesteko garrantzia dauka hizkuntzaren kontuak. Kalitate eta hobekuntza prozesuan ezinbestekoa bihurtzen da harreman tresna bezala darabilgun hizkuntzak. Kirol arloan lanean ari garenok euskara erabiltzea oso inportantea iruditzen zait. Inportantea den bezala gure lana euskaraz burutzeko garaian erabili beharreko hizkera tekniko eta bibliografia egoki bat izatea. Argi dago arlo honetan egiten diren hobekuntzak beti izango direla onak gure hizkuntzaren normalizaziorako.

Ordizian HITZARO Euskara Elkarte sortzea, beraz, berri pozgarria da, eta elkarte honen lana tresna baliagarria izan daiteke gaur egun ditugun beharrei erantzuteko.

Nire zorionak eta babes osoa eman nahi dizkiot lerro hauen bidez HITZARORI bere lanarengatik.

Animatu eta egin zaitezte Hitzaroko bazkide.

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

IBAI - ONDO



ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfona: 880543 BEASAIN

DBH

O
R
D
I
Z
I
A
K
O



P
U
B
L
I
K
O
A

ESO

IKASTETXE

- Kalitatezko heziketa B eta D ereduetan
- 12 -19 urte zentru berean
- Esperientzia
- Metodologi berritzailea eta aktiboa
- Erreformatarako prestatua
- Jangela eta garraioa (dohainik)

IZEN EMATEA

OTSAILAREN 1etik 20ra

● Otsailak 2, ostirala, Kandelaria Eguna:

17:00etan: Merienda umeentzat plazan, buruhaundi eta guzti. Ondoren jokuak.

19:30ean: Ohizko Meza eta kandela bedeinkazioa.

20:00etan: Ohizko kanpai bueltakoak eta txistularien kalejira. Buruhaundiak ere izango dira.

20:30ean: Jaien pregoia, txupinazoa eta axariaren jeitsiera plazan. Danborradako partaideek giroa berotuko dute.

23:00etan: Helduen danborrada. Ondoren, Akelarrek alaituko du gaua 4:30ak arte.

● Otsailak 3, larunbata, San Blas Eguna, Koadrilen Eguna:

10:00etan: Txistularien kalejira.

11:00etan: Meza Nagusia, Bittoriano Telleriarena. Ohizko erroskila be-

deinkazioa ere bertan izango da. Ondoren hamaiketako Bikario etxean.

11:30ean: Herriko eskalada txapelketa, Zelaako Kiroldegian.

12:00etan: Paella erraldoia egiten hasiko dira plazan. Eguerd artean herriko trikitilariak kaleak alaituko dituzte, eta 'poteo dotorea' egingo da.

14:30ean: Paella jana izango da plazan.



Arg.: Juanito Lizarralde

17:30ean: Mutilen futbito txapelketa-ko azken partidua izango da Futbito aretoan.

19:00etan: Igarondo pilotalekuan afizionatu mailako eskuzko pilota partidua: Koka-Gelbenzu Aritz-Etxeberriaren aurka. Berraondo-Almandoz Olaizola-Apeztegiaren aurka.

20:00etan: Buruhaundiak.

20:00etatik 04:00etara: Trabuko.

IRIONDO ELEKTRAGAILUAK

Herritarroi festa onak opa dizkizue

Nagusia, 5
IDIAZABAL

☎ 187165

MUJIKA HARATEGIA

Odolki eta txorizoetan
bereztasuna

Kale Nagusia, 2
☎ 18 71 82

IDIAZABAL

IONEKA

OINETAKOAK
KIROL JANTZIAK

Bikuña, 1
IDIAZABAL

☎ 800227

JERONIMO-ENEA

*Taberna
eta
gasolina surtidorea*

☎ 80 10 96 IDIAZABAL



MUJIKA

jatetxea

*Kogote erreak,
txuletak*

Nagusia, 42 ☎ 80 18 19
IDIAZABAL



ZEPAI

JATETXEA

☎ 18 71 98
IDIAZABAL

02:00etan: Karaoke lehiaketa plazan.
04:30ean: Txokolate jana plazan.
07:00etan: Sokamuturra Futbito Pisan.

● Otsailak 4, igandea San Blas Txiki Eguna, Ezkondu eta Umeen Eguna:

10:00etan eta 13:00ak arte: Gipuzkoa mailako bola txapelketa.


11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara: Umeentzat parkea eta jolasak Zelaako kiroldegian.

11:30ean: Eguerdian plazan alardea eskeiniko duten Goierriko Txistulariek kalejira egingo dute herrian zehar.

11:30ean: Ohizko hamaiketako plazan. Trikitilariak ere hantxe izango dira.

12:00etan: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolarien saioa plazan.

13:00etan: Goierriko Txistularien alardea plazan, eta era berean, Axari Dantza taldearen saioa.



Arg.: Lurdes Intxausti

17:30ean: Nesken futbito txapelketa-ko 3. eta 4. postuak jokatu dira Futbito pistean.

18:30ean: Nesken futbito txapelketa-ko azken partidua jokatu da Futbito aretoan.

19:00etan: Talo eta sagardo dastaketa plazan.

19.30tik 02:30ak bitartean: Joselu Anaiak.

20:00etan: Buruhaundiak.

00:00etan: Axaria, hurrengo urterarte agurtuko da plazan.

Oharrak:

● Bertsolariak Mujika jatetxean izango dira San Blas Txiki egunean, bazkalondoan.

● Otsailaren 2a, Umeen Eguna izango da, eta barraketako postuetako prezioak jaitsi egingo dituzte.

● Kultur Etxean, herritarrek urtean zehar egindako eskulanak ikusgai egongo dira: zeramika, taila, harilanak.

● Datorren urteko jaietako programarako argazkiak aukeratzeko lehiaketa antolatuko da hurrengo urtean ere, eta aurtengo jaietako argazki edo diapositibak aukeratu dira.

KONTXI HARATEGIA MIKEL JANARIDENDA

Festa onak pasa!

Nagusia, 14 ☎ 18 70 78 IDIAZABAL

BATZOKI TABERNA

Pintxo eta kalamarretan espezialdua

Nagusia, 24 ☎ 18 71 25 IDIAZABAL

ALAI Jatetxea



*Jai
 zoriontsuak!*

Etxegarate gaina
 Tfnoa: 80 12 83
 IDIAZABAL

AXARI jantzi denda

Nagusia, 6 ☎ 80 19 84 IDIAZABAL

PERIKO ARRANDEGIA

Kale Nagusia, 16 ☎ 18 71 13 IDIAZABAL

ANAIAK GARAJEA



MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA

Guardiko Industri-Poligonoa
 Tfnoa: 80 11 32

IDIAZABAL
 (Gipuzkoa)

LASTER ITXIKO DUTE IDIAZABALGO TABERNA EZAGUNA

Txikietan handiena, Bentatxiki

A benduaren azken egunetan hil zen Bentatxikiko

Norberto Oiarbide. Orain, haren heriotzarekin batera 200 urtez Idiazabalen zabalik egon den denda eta taberna honek betirako itxiko ditu ateak. Urte guzti hauetan, ordea, makina bat kontu eta gertakizun izan da Bentatxikin.

Orain 200 urte, artzainek egindako txabola bat besterik ez zen Bentatxiki. Juanita Oiarbidek esan digunez, Amerikan zuten osaba bat behin bisitan etorri eta hark animatu omen zituen bere gurasoak denda jarri zezaten. Baita egin ere, negozioa pixkanaka handituko zutelakoan ekin zioten lanari Bentatxikin. 14 seme-alaba jaio eta hazi dira etxe honetan gerora. Orain, Norberto hil zenetik Juanita eta Inazio baino ez dira bizi Bentatxikin.

Gurasoak urteetan aurrera joan ahal, Norbertok hartu zuen denda eta tabernaren ardura, hari jubilatzeke ga-



raia iritsi zitzaionean Juanitaren esku geratu zen, orain Juanitak berak esan digunez, "Inazio eta biok ere zahartzen hasi gera, eta taberna oso lan lotua denez ixtea erabaki dugu".

Itxi aurreko egun hauetan Bentatxikiko taberna eta denda erdi hutsik badaude ere, urteetan zehar mota guztietako tresnak egon dira zintzilik tabernan "izan ere hemen salgai geneuzkan gauza asko ez ziren egoten herriko

beste dendetan, eta jendea horrelako gauzen bila asko etortzen zen", dio Juanitak.

Dendan ere denetik izan dute salgai: jakiak, galtzerdiak, oinetakoak, edariak... batzuetan gutxiago, besteetan gehiago Bentatxikiko apalak beti beteta egon dira. Razionamendua egon zen garaian Idiazabalgo etxe honetan biltzen zituzten inguruko eta Ursuarango baserrietako bizilagunei zego-



**BUENOS AIRES
JATETXEA
LOGELAK**

ETXEGARATE GAINA
☎ 18 70 82
IDIAZABAL

**ODEI
Taberna**

Kafe-krema espezialak

Nagusia, 29 IDIAZABAL

**FRONTOIKO
TABERNA**

Festa onak pasa!

Mateo Mujika Kalea
☎ 18 70 74 IDIAZABAL

XUME TABERNAK

Festa onak opa dizkizue

Nagusia, 5 IDIAZABAL ☎ 18 70 35

kien janaria. Artean, denda eta taberna bat ziren, gerora egin zuten banaketa.

Norberto, negoziantea

Taberna eta denda seme-alaben esku geratu zirenetik Norberto saiatu zen gehien Bentatxiki aurrera atera zedin. Berak jarri zituen martxan bertan egiten ziren errifak, bera hasi zen Gabonetako loteria saltzen eta Norbertori bururatuta hasi ziren afaria zerbitzen. Juanitak esan digun bezala, "hura negoziantea zen eta gainera balio zuen".

Norbertok sukalderako zuen zaletasunak bultzatuta hasi ziren afariak ematen, "Norbertori asko gustatzen zitzaion sukaldean aritzea. Berak prestatutakoa nik zerbitzatu egiten nituen", esan digu. "Afalondoan ordea aldaketa egiten genuen, ni sukaldera eta anaia soinua hartuta komedorera", gaineratu du.

Jangela txikia izan arren, bertara hurbiltzen zen guztiarentzat egoten zen zabalik, "behin 25 lagun sartu ziren komedorera, ez zirela kabituko esan arren, nola edo hala sartu eta afaldu zuten", dio Juanitak.

Bentatxikiko erromeriak

Bentatxiki zabalik egon den urte haue-tan noiznahi entzuten zen bertan Norbertoren soinua. Norbertok berak kontatuta dakigu Bentatxikin urte askotan igandetan erromeria egiten zu-



tela. Aszentsio egunean ere festa berezia egiten zuten. Egun horretan Santa Barbarara ibilaldia egiten zuten eta handik bueltan Bentatxikin jarraitzen zuen jaiak. Hasieran errepide ondoan, gerora kotxeekin arazoren bat izan zuten eta etxe atzekaldean egiten zuten festa

Tabernako bizimodua

"Zuek hor pasatzen dituzuen momentuak nik oraindik ez ditut pasatu e!", horixe entzun omen zion Juanitak barra atzetik taberna zergatik itxi behar duten galdetu zion bati. Izan ere tabernako lanak lotura handia ekarri die etxekoei.

"gure aita zena askotan goizeko lau-
retan jaikitzen zen gurdia hartuta be-
larretara joaten zirenei anis kopa bat
emateko". Juanitaren esanetan, "au-
rrera ateratzeko guztia behar zen".

Hamabostean behin, igandetan itxi egiten zuten taberna eta azkenaldian jaiegun guztietan. Izan ere astebarruan eta iluntzean bildu izan da jende gehien tabernan, lanetik etxerako bidean zetozenak edo baserriko lanak bukatuta joaten zirenak, "hona erropak aldatu gabe, laneko jantziekin etortzea baze-
goen, kalera joateko, berri, aldatu beharra izaten da".

Tabernako bizimoduak sortzen di-
tuen hainbat gertakari ere izan da Ben-
tatxikin. "Behin, behar baino gehiago
edan eta gaiztokerietan hasi zen bat
tabernatik ateratzen saiatu zen Nor-
berto, bestea ordea konforme ez eta ate
ondoan zegoen eskuarela hartu eta bu-
ruan jo zuen Norberto", kontatu digu
Juanitak.

Hamaika istorio eta gorabehera ger-
tatu dira Bentatxikin. Dendari, taber-
nero, traperero, erroskila saltzaile... de-
netarik egin dute Oiarbide anai-arrebek
gurasoengandik jaso zutenari eusteko.
Orain etorkizunik ez zuten Bentatxiki itxi
egingo dute. Han izango dira, ordea,
Inazio eta Juanita, azken honek esan
digunez, "hemen jaio gera eta hemen
jarraitu nahi genuke".

 Xabier Urteaga



Jai zoriontsuak opa dizkuzuegu

☎ 18 71 93
IDIAZABAL

ARANTZAZU arrandegia


Kale Nagusia, 20 ☎ 18 70 68
IDIAZABAL



Etorri zaigu berriro ere
Idiazabala San Blasa
Kimuren izenean
denok ondo pasa



MUJIK



frutak - barazkiak

☎ 18 72 20 (biltegia)
☎ 80 14 69 (etxea)

Plaza Nagusia, 6
IDIAZABAL


ITSASONDO

Udala intsumitua eta UEMAKo kidea

Bi mankomunitatetan sartu berri zaigu Udala. Batetik, aurrerantzean intsumitua izango dela aldarrikatu du, eta EUDIMAn (Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatea) sartu da. Bestetik, euskararen erabilera normalizatzeko ordenantza onartu eta UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) sartzea erabaki du.

Udal intsumitua izateak zera adierazten du: Udalak publikoki bat egiten duela Ejerzitoan Soldaduska betetzeari uko egiteko edozein herritarrek duen eskubidearekin. *"Intsumisioaren bidea aukeratu duen euskal gaztediaren zati handi baten konprometua geureganatuz eta Euskal Herriko hainbat taldek eta se-nitartekoek egindako lanak txalotzen dugun bitartean, elkarrekin intsumisioaren bidez uztartzen diren helburuak babesteko, bultzatzeko eta zabal-tzeko konprometua hartzen dugu".* Horretarako, *"intsumisioaren alde aritzeagatik jazarriak, behartuak ala zigortuak izan daitezkeen herritarrak politikoki, sozialki edo juridikoki ba-besteko gure esku dauden baliabide guztiak erabiltzeko konprometua har-tzen dugu"*, dio EUDIMaren eraketa agiriak.

Gauzak honela, bere helburuak lortzeko honako funtzio hauek asumituko ditu Udalak: errepresaliatuen jarrai-pena egingo du lehenengo notifikazioa emango den unetik; behar den aholku eta asistentzia juridikoa eskainiko die intsumituei, bai Udaletxe intsumitu eta beraien hautetsi publikoei; ejerzitoa-



Jose Mari Otegi, Alkatea.

rekin kolaborazio eza aktiboa eduki-tzea; intsumisioa eta desmilitariza-zioaren alde sentsibilizatzeko eta bul-tzatzeko ekintzak eta inizatibak sortu; epaiketa egoten denan, Udaletxe inpli-katuak bertan egon beharko du; eta intsumisioaren aurka sortutako Or-dezko Zerbitzu Soziala herrian finka-tzen ez du lagunduko, elkarte kolabo-ratzaileekiko harremanak aztertu eta berrikusiko ditu.

Jose Mari Otegi alkateak adierazi digunez, Udalaren erabaki hau gizar-tearen islada da, herriko gazte gehienak intsumituak baitira. Piskanaka beste Udalek ere erabaki bera hartuko due-lakoan dago Otegi.

UEMAn barneratuta

UEMAn ere sartzea erabaki du, euska-raren erabilera normalizatzeko orde-

nantza onartuz. Helburua, euskara gizarte sektore guztietako harrema-netarako hizkuntza bilakatzea da. Helburu hau lortzeko UEMak bere batzarrean onartutako plangintza aurrera eramango du. Besteak beste, Udalak, normalean euskara erabili-ko du, ahoz nahiz idatziz, barneko iharduera administratiboan eta bere harremanetan. Herritarren batek eskatuko balu, gaztelaniaz ere emango litzaioke. Era berean, kalee-tako errotulazioa eta denda, taberna eta bestelako zerbitzuetako txarte-len euskalduntzea bultzatuko du.

Bestalde, Udalak herritarren in-plikazioa bultzatu nahi du. Horre-tarako, 'Kantillape' udal aldizkarian gaia zabalago landuko da jendeak in-formazioa izan dezan.

Itsasondotar gehienak euskaldunak dira, asko hitz egiten kalean euskaraz Jose Mari Otegiren arabera. Kanpotar batzuk badaude, baina erabat integra-turik omen daude eta *"ez dut uste ara-zorik egongo denik. Gainera, herrita-rrek izango dute gaztelera-zko gutunak edo informazioa jasotzeko aukera, horrela eskatuz gero. Alderantziko funtzionamendua sortu nahi da: lehen gaztelera-z ematen zena orain euskaraz eman, eta gaztelera-z nahi izanez gero, eskatu egin beharko da. Normalean alderantziz egitera ohituta gaude"*, esan du alkateak. *"Udaletxera gazte-leraz iristen zaizkigun paper guztiak itzuli egingo dira"*, gaineratu du.

Edurne Ayuso

Sagardotegia



aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak: 880243 - 880133
BEASAIN



PINTURAS ORDIZIA

pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6
☎ 88 59 28 - 16 17 44 ORDIZIA

Loinatz-97 Kultur Elkartea aurkeztu da

Ekintza eta jai ugari ditugu egunotan herrian. Hasteko, atzo, otsailaren leian, jendaurrean aurkeztu zuten Loinatz-97 Kultur Elkartea. Prentsaurreko baten bidez, Kultur Elkartea berri honen sorrera eta helburuak eman zituzten jakitera. 1997an Loinatzko San Martinen heriotzaren 4. mendeurrena betetzen dela aitxakiatzat hartuz, Beasaingo herria ezagutaraztea eta beasaindarrak proiektu honetan parte hartzea ditu helburu nagusienak Loinatz-97 Kultur Elkartek. Horretarako, 1997. urtearekin ekintza kulturalak indartu nahi dituzte eta oihartzun berezi bat eman. Kultur Elkartearen ordezkarien asmoz, aurtengo udazken kulturalean eman nahi diote hasiera kultur ekintzei. Ondoren, ospakizun garrantzitsuenak Loinatzko San Martin egunenaren inguruko hilabeteetan bilduko lirateke, Beasaingo jaiak bitartean. Udako oporraldiek ekartzen duten atsedendariaren ondoren, 97ko udazkenarekin indarra hartuko lukete berriro ekitaldiek eta abenduaren 31ko San Silbestre lasterketarekin emango litzaioke amaiera.

Ekintza hauek guztiak aurrera ateratzeko orainarte biltzen direnen artean lau lantalde bereizi dituzte: sail erlijio-soa, kultur-pedagogikoa, enpresa eta sindikatuak, eta elkarteak eta entitateak biltzen dituen saila. Ideia eta asmoz beterik sortu den Loinatz-97 Kultur Elkartek ekintza guztien adierazgarri izango den logotipoa ere aurkeztu zuen. Irudian duzuen horixe da.

Aipatzekoa da baita ere, Arriarangoa den Martin Mendizabal frantziskotarrak Loinatzko San Martinen bizi-tzari buruz eta duela 400 urteko beasaindarren ohitura eta usadioei buruzko liburu bat prestatzen ari dela eta guztia bide onetik badoa, datorren ur-



teko ospakizunen barruan aurkeztuko da.

Liburutegiko informatizazioa

Gaur, otsailaren 2an, berriz, inauguratuko da Udal liburutegiko informatizazioa. Hemendik aurrera ordenagailuek liburutegien eta bezeroen lana erraztuko dute. Informatizazioaren bidez, liburuaren topaketa erraztuko da, egileen eta argitalpenen informazioa aurkitzeko bidea eta edozein kontsulta egin ahal izateko lana azkartuko da. Lehen eskuz egiten zena orain ordenagailuaren bitartez egin ahal izango da azkar eta eroso. Honela, arduradunen hitzetan, etekin gehiago atera ahal izango zaio materialari eta mailegua eta erabilpena azkartuko dira.

Iazko apirilean hasi ziren liburu eta aldizkari guztien datuak sartzen ordenagailuan eta esan bezala, gaur inauguratu da ofizialki Udala eta Eusko Jaurlaritzak babestutako lan hau.

Santa Ageda bezpera

Arrano Kultur Elkartek azken urteetan ohi duenez, Santa Ageda bezperako ekitaldiekin dator. Otsailaren 4rako, babarrun jan ederra antolatu dute. Bazkari hau bertako bazkidea eta Tolosako babarrun lehiaketan txapeldun izan den J.M. Soroizek prestatuko ditu. Bazkalondoa girotzen Amuriza, Mendizabal eta Egaña bertsolariak izango dira. Ondoren eta urteroko usadioari jarraituz, Arranotik Santa Agedako koroa aterako da. Arranok gonbitea luzatzen die joan nahi duten guztiei eta egunak eskatzen duen arropa egokiez jantzita joatea gomendatzen da.

San Martin Eguna


Otsailaren 5erako, Beasaingo patroia- ren egunerako egitarau berezia antolatu da. Egun honetan ere, Odolkiaren kofradiak bere XI. biltzar nagusia ospatuko du. (Egitarauaren berri Agenda atalean duzue).

Aurtengo senidetasun bazkarirako odolkiak Kepa Loidi 'odolkien erregeak' prestatuko ditu. Era berean, 4 kofrade berri izendatuko dituzte: Beasain Kirol Elkartea, Ordiziako Gaztaren Kofradia, Elozegi ardoak eta Javier Gonzalez 'Currito' izeneko sukaldaria.

Gazte Asanblada

"Gazte hire beharrean gerez: A.H.T., gaztetxeen itxiera, lokalik ez, intsumisioa... Noiz bihurtu behar duk hire ke-xua ekintzan?", diote Gazte Asanbladakoek. "Herri hau aldatu nahi" izanez gero, otsailaren 9an, arratsaldeko 7etan, Kimuak-en lokalean, izango den bilerara gonbidatzen zaitu BGAK.

Mikel Apaolaza



Nagusia, 11

☎ 88 82 37

BEASAIN



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 80 10 66
80 10 70 (Etxea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartzeta Oletako kioskoan, Begue janaridendan, Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardendan, Muño denda Urdanetan.

Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen denda, Arrondon.

Segurako Erosle eta Idiazabalgo Alda-

Ikastolako haurrek elkartasunezko zozketa hilero

San Benito Ikastolako 6. mailako ikasleek 5 txirrindu zozketatuko dituzte, otsailetik ekainera. Txirrinduak ETBko Superbat-en irabazi zituzten. Bertan parte hartu aurretik, sariekin zer egin behar zuten erabakitzeke garaian, haur behartsuei ematea erabaki zuten. Hau jakinda, ETBko arduradunek, zegozkien 3 txirrindu eman beharrean 5 eman zizkien. Ondoren, gabonetan ume behartsuen artean banatzea ezinezkoa izan zenez, dirua 3. mundura bidaltzea erabaki zuten. Txirrinduak salduta baino diru gehiago aterako dutela eta, hauek zozketa egingo dituzte. Hilean txirrindu bat zozketatuko da, 50 pezetako erri-fatan, hileko azken ostegunean, ON-CEren azken 3 zenbakiekin. Diruaren zati batekin Peruko 3 haur hazten lagunduko dute eta beste zati bat Ruarda bidaliko dute Lazkaoko misiolarien bidez. Aipagarria da erabaki hauek denak ikasleen beraien iniziatiba izan direla.



“Antzarren” VI. bertso-paperak

OHO-ko 6, 7 eta 8. mailako “antzarrek” VI. bertso-paper biltetan parte hartzeko aukera dute oraingoan. Urteroko legean, gazteek bertso mundua hobe ezagutu eta garatzeko ekimen hau antolatu dute Maizpide eta Goiherriko Euskal Eskolak.

Gaia eta neurri libreak izango dira eta bertsoak bakarka nahiz taldeka egin daitezke. Bertsoak, makinaz idatzita aurkeztu beharko dira, izenburua eta

zein doinutan abeste-koak diren adierazi beharko direlarik. Euskara, neurri eta errima aldetik txukun daudenak liburu batetan argitaratu eta banatuko dira.

Lanak aurkezteko epea otsailaren 9an amaituko da. Horretarako, irakasleari ematearekin nahikoa izango da. Lanekin batera, egile guztien izen-abizenak eta ikasten ari den maila adierazi behar da.

Bertso-ikastaro laburra

Bertsoekin jarraituz, bertsoak idatzi eta abesteko ikastaroa antolatu dute Goierriko Bertso Eskola, Goiherriko Euskal Eskola eta Lazkao Txiki taldearen artean. Ikastaroa astelehen eta asteazkenetan izango da, arratsaldeko 4.30etatik 5.30etara San Benito eta San Prudentzio eskoletan.

 Iraida Martin

ZALDIBIA

Promoziorako pilota txapelketa

Zaldibiko Gailurrerantz Kirol Elkar-teko Pilota Eskolak txapelketa garrantzitsua eratu du 1996. urterako, benjamin, alebin, infantil eta kadete kategoriakoentzat. Benjaminak dira 1986 eta 87an jaioak; alebinak, 1984 eta 85an; infantilak, 1982 eta 83an; eta kadeteak, 1980 eta 81an jaioak.

Bi-bitara jokatu du txapelketa, eta, antolakuntzak hala derrigorturik, bikote-kopuru mugatuak parte hartu ahal izango du. Hori dela eta, arau hauek ezarri da: “kirol elkarrekin kategoriako bikote bana baino gehiago ezin izango dute inskribatu”. Guztiarekin ere, berri-emaile honek jakin ahal izan duenez, jende askok eman du izena eta lehia handiko txapelketa izateko kon-dizio guztiak dauzka.

20-GOIERRITARRA

Eztabaida-afaria

Otsailaren 2an, ostirala, iluntzeko 8etan, mahaingurua izango da Zaldibiko Zubiburu elkartearen, honako gai hau tratatuko delarik: “Elkarriketa eta akordioari buruzko Altsasuko hitzarmena”. Hiru lagunek osatuko dute hizlari-mahaia: Senideak-en izenean, Ramon Gaztelumendi; Amnistiaren Aldeko Batzordearen ordezkari, Juan Mari Olano; eta Elkarriren aldetik, Jonan Fernandez. Teresita Irastorza izango da moderatzaile. Mahainguruari afaria jarraituko zaio.

Familiari buruzko ikastaroa

Herriko guraso talde batek parrokiako arduradunarekin batera antolatuturik,

familiari buruzko ikastaro interesgarria ari da ematen. Otsailaren 3an, larunbata, arratsaldeko 5etan, izango da hurrengo saioa. Aurrekoetan bezalaxe, Jesus Mari Arrietak, Etika Sozialeko irakasleak, gidatuko du hitzaldia. Hauxek izango dira oraingo honetan jorratuko diren puntu batzuk:

-Post-modernismo garaiotan nola kokatu familia?

-Nola aurkitu giza balore progresista, gaurko, zuzen eta egokien sustraiak?

Hitzaldiok, didaktikoak dira, guraso gazteentzat pentsatuak. Giza balore positiboak seme-alabei ahalik eta egokien nola transmititu jabetzeko eratuak.

 Rufino Iraola

Hiru astez azoka pilotalekuan

Enparantza nagusiko obrak direla eta, Udalak 3 astez as-teazkenetako periai lekuz al-datzea erabaki zuen. Bi as-teazken frontoian igaro dituztenean, saltzaileen balantzea ez da txarra izan, nahiz eta merkatariak Enparantza nagusira itzultzeko irrikitan dauden, ohiko saltzaileak balduta baitabiltza postu berri hauetan. Barazki eta lore saltzaileek pilotalekuan ipini dituzte euren postuak. Gazta saltzaileak J.M. Barandiaran plazan daude frutazaleekin batera.

Datu bitxi bezala, ez da lehendabiziko aldia mende honetanan azoka Enparantza nagusitik irtetzen dena. Plaza estaltzeko obrak egiten hasi zirenean 1923an leku aldaketa ezagutu zuen feriak eta lanek 1925erarte iraun zutenez, pilotalekuan ezarri zuten ohiko peria. Ordutik hona, nahiz eta egun desberdinetan egin, kokalekua beti berbera izan da.

Oilo kalea obratan

Goitia kalea, herritarren artean 'Oilo kalea' bezala ezagutzen dena, obratan dago urbanizazio lanak direla eta. Arrazoi honengatik hainbat astetan itxita egongo da kale hau. Honelako ikuskizunetara ohitzen joan beharko dugu, denbora aurrera joan ahala kasko historiko guztia berritzeko asmoa baitago.

Hitzaldia

'Gaztedia, ezaugarriak eta baloreak. Eskolaren garrantzia eta zeregina'



gaia hartuta hitzaldi interesgarria antolatu du Ordiziako Jakintza Ikastolak. Gazte izatea zer den; gaurko gazteria desberdina ote den; gurasoek, gizarteak, eskolak... sakonean zer egiten ote duten; gaurko egoeraren agerpena; eskolaren papera zein izan beharko ote lukeen... eta bakoitzak dituen kezka, zalantzak kontrastatzeko aukera izango da. Bi aditu izango dira hizlari: Jexux M. Mujika, EUTGen Antropolgia eta Etikako irakaslea, Sto. Tomas Lizeoan Balo-reen hezketa arduraduna eta Mikel Amas, Elizbarrutiko arduraduna, Erlijio eta Baloreen pedagogian. Hau guztia, otsailaren 6an, arratsaldeko 7etan Barrenan izango duzue. Jakintza Ikastolak gonbitea luzatzen die gai honetan kezkatuak dauden guztiei.

Aurrerapausua Argi-Berrin

Argi-Berri Elkarteko bazkideen seme-alabek bazkide izateko aukera aparta izango dute hemendik aurrera. Gaur egungo egoera ekonomikoa

eragozpena izanik mugatuta ikusten dute hainbat gaztek herriko zenbait Elkartetan sartzeko aukera. Honen aurrean gazte batzuk honako proposamena luzatu zieten Argi-Berriko bazkideei: bazkideen seme edo alabek, ahalik eta diru-iturri finkorik ezean, sarrerako dirurik ez ordaintzea (100.000 pezeta), hilero kuota erdia ordaintzea (1.250 pezeta) eta bazkide arrunten eskubide berberak izatea.

Honetarako batzorde bat sortu eta urtean zehar bilerak egin ondoren, azkenik ohiko batzarrean gaia mahai gainean ipini eta onartu zen. Orain artean gainontzeko Elkartetan ez da horrelakorik gertatu.

Bestalde, aipatu aurtengoan ere Argi-Berri Elkartek Mus Txapelketa Azkarra antolatzeko asmoa duela eta berau otsailaren 10ean izango da.

XVII. Futbol txapelketa

Iritsi da aurtengoa ere herritarren artean hain sona handikoa den lagunarteko futbol txapelketa dastatzeko aukera. Hasiera batean 14 taldek bakarrik eman dute izena. Antolaketa lanak 'Ala Pivot' eta 'Kontundientes' taldeei egokitu zaizkie. Aipatu aurtengoan, hainbeste urtean hor ibili eta gero, Laket taldeak ez duela jokatu-ko.

 Aitor Calvillo

OLAGI

sagardotegia

Sagardotegiko afariak
Enkarguz bazkariak
eta ospakizunak

☎ 88 77 26

ALTZAGA




KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

Santageda koplak ondo gordeta



Ederki asko gorde ditu 54 urtez, Espilla baserriko nagusi den Felix Eskisabel.

Egun handia izaten zen garai batean Santageda bezpera. Kantuan ibiltzen ziren atez-ate. Felixek, Arrondoko Kamiñon zegoen Gau-Eskolan apuntatu zituen. 113 koplak, plumaz idatzita. Don Juan Arin, 'Don Juan txiki' zenak jasotakoak 1942an. Garai hartan hiru Gau-Eskola ziren herrian: Samartinen, San Gregorion eta Arrondon. Ergoneko Martin Barandiaran, 'Martin mai-xu' zena zuten erakusle. Baserriko lanak bukatutakoan izaten ziren klaseak. Udazkenetik udaberrira gutxi gora-behera, arratsaldeko 7etatik 9etara.

Santageda kantuan ilundu eta gero hasten ziren. Mutilak bakarrik. Emakumezkoak etxezai. Garaiak ziren halakoxeak! Goizalderarte ibiltzen ziren etxez-etxe. Dirua, txorizoa eta horrelako gauzak biltzen zituzten. Afari on bat egiteko adina. Gehienek, makila izaten zuten eskuan eta batzu-batzuk zakua bizkarretik, erauntsiren batek harrapatu beldurrez.

Espillako Felixek esan digunez, Es-
kitxalgo Jose Inazio zena, izaten zuten kantari. Harek koplak kantatu eta bes-

teek erantzun. Etxe batzuetan, ordu erdi igual egiten zuten kanta eta kanta.

Kopla bereziak dira eta ordena batean kantatu behar dira. Felixek haxe dauka liburuan idatzita: 'Contuan eguqui beti' "

1. Coplatzen den echean ez uzi iñorcho coplatu gabe.

2. Persona bacoitze, dagoquion illaran eta lecuan coplatu bearda. Lenengo nagusi echecoandreac. Bigarren senar emazte gazteac. Irugarren alargunec. Laugarren, motille zarrenetic asita. Bosgarren nescac. Oec ere, zarrenetic gazteneac. Seigarren morroi nescameac. Jai ontan descuidoac gogoan artu ori dire.

3. Bat coplatu eta ondorengoac coplatzen asteco, esan oida zarrenetic: "Orain aurrera goatzen (izena) ori coplatzen".

4. Copla bat baño gueigo canta leizque persona bacoitzei, baño albait ondo auqueratuac izan ditezela. Doaye dauquenac copla berrie somatu deique baño ez iñori miñe emateco eracoric."

Kontu guzti hauek, Gau-Eskolan idatzita dauzka Felixek 1942an. Koplak argitaratu ere egin zituzten Arboneteko Aita Isidro Baztarrika zenak eta Saarteko Aita Joxe Arratibelek. Goierriarrak 93an kaleratu zituen, 30. zenbakian.

Mila esker Felix.

Haizea harro

Ez da giro izan. Ateak eta leihoak ondo itxita ere, nahiko lan izan da. Gozatu ederra hartuta izango da Mateo Txistu.

Kalte eta susto ugari izan da herrian, teilak direla, zuhaitzak direla, sua dela... Leku batzutan teilatua oso-osorik altxatu, beste batzutan suarekin komeriak. Urbaindi inguruan herriko 200 pinu erre dira eta Aiarre baserrian, berriz, susto ederra izan zuten tximineko txingarra-
rekin. Gutxi-asko etxe gehienetan

egin du okerre bat haizeteak.

Baina lehen ere izan dira antzekoak edo okerragoak. Joan zen, 1787an haizete ikaragarria izan omen zen ilbel-tzean. Igoniz eta Sastarri aldean pago eta haritzak bota zituen. Beanbu eta Gesalbe inguruan ez omen zen hainbestekorik izan.

Ba, kalteak ikusita erabaki hau hartu zuen herriak: 2 urtean, zuhaitzik botatzea edo egurra egitea galerazi zuen, sukalderako ez bazen behintzat.

Horrekin kontsolatu beharko dugu.

Lizarrusti-San Martin

Mendi-Ibilaldia. Otsailak 11, igandea, goizeko 8:45ean irteera San Martingo Plazan. Lizarrustira Estellesan joango dira. Kirol Elkartek herrian zehar antolatzen duen 15. buelta izango da. Leku politak pasako dituzte: Sukalde Zaharreko Kobapea, Tunela, Lareoko Urtegia, Jentilarrie, Sakristau Arrie, Matxitxane Jentilarria, Intsusti, Alei, Beamako Zelaie, Kanpaitso, Dostollo Zubitta, Auzate ta Kalbario Santue.

Motzean

● **Iker sasoian:** Marka guztiak hautsiko ditu. 17 metroak ez ditu urruti. 16 metro eta 81 zentimetro bota zuen bola larunbata 27an. Lehengo marka 3 zentimetro ondu zuen. 18 urte oraintxe egin ditu. Zorionak.

● **Hauteskunde usaia:** Martxoaren 3a badator. Okerrik ez dela, 1.415 herri-tarrek izango dugu boto-eskubidea. Udal-hauteskundeetan baino 2 gutxiagok.

● **Lapurrak kaskagor:** Saiatu faltan ez dira izango. Berririo lapurreta egin dute Atsedentoki Elkartean. Igandetik astelehenerako kontuak dira. Ez zuten diruketarik eraman.

● **Aizkoatek buru berria:** Zainduko Inazio Auzmendi jarri dute presidente. Herriko Elkarerik zaharrena. 1959ko maiatzaren 12an sortua. Bazkide berriak hartu ditu eta beste lagun pare batentzat lekua ba omen dago.

Jon Aizpurua



Koruko Aizarna Kultur diputatua herria ezagutuz

Urtarrilaren haseran, Koruko Aizarna Kultur diputatua izan genuen gure herriko kultur egoeraren berri jasotzen.

Lehenbizi, udaletxean bildu zen Alkate eta zenbait zinegotzirekin. Bertan herrian ditugun zenbait proiektu eta asmoren berri eman zitzaion, beti ere zuzenean errazago izaten baita. Besteak beste, Buztingintza Tailer bat martxan jartzea, 'Gregorio Aramendi' izena izango lukeena, herriko seme kuttun honi zegokion tokia emanez. Horrez gain, sortu berria den antzerki tailerraren berri ere eman zitzaion.

Kultur Etxeko Batzordeak, proposaturik hitz egindako beste gai garrantzitsua Juan Telleria musikari ospetsuari omenaldia egitea izan zen, 1995ean, jaio zenaren 100. urtemuga izan zelako. Esan musikari hau, herriz kanpo oso ezaguna dela egin zuen musikari onari esker; ez al dugu garaia zegamarrok Juan Telleriak musikari bezala merezi

duena errekonozitzeko eta batez ere kontzertu baten bidez, bere musika entzun eta dastatzeko? Bere obra ezagunen artean, 'La Dama de Aitzgorri', 'Duc in Altum' (Ondarruko arrantza-leen goratzarrea), 'Canto a la Cerveza' eta abar luze bat dugu.

EPA

EPAn edo Helduentzako Hezkuntza ikastaroetan izena emateko epea otsailaren 2 arte irekita dago. Interesa duenak, Udaletxean eman behar du izena bulego orduetan.

Santa Ageda bezpera

Datorren otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera ospatuko da gure herrian. Ohi bezala aurten ere arratsaldeko 3.30ak aldera Herri Eskolako haurrak aterako dira kantuan eta arratsaldeko 6.30ak aldera Orkatz abesbatzarekin batera helduak izango dute aukerarik kantuan

egiteko. Aurten ere Zeberio bertsolariak lagunduko du saio honetan.

Afaria

Datorren otsailaren 24an, afaria egingo dute Ikastola zaharrean ibili zirenek, 1995. urtean, Ikastola sortu zeneko 25. urteurrena izan baitzen. Afarirako zenbat izango diren jakin eta lekua eskatzeko behar beharrezkoa da, otsailaren 18rako izena Txanton tabernan ematea.

Bertso jaialdia

Otsailaren 10ean, gaueko 10.30etan, urteroko bertso jaialdia antolatu du Zegamako Batasun Kasinoak. Honako bertsolari hauek izango dira: Estitxu Arozena, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano.

 Ederne Albizu

ORMAIZTEGI

Urteko lehen hilabeteen hiru haur jaio dira

Lehengo urteko azken hiru hilabeteek lau herritar berriren jaiotza ekarri bazi-guten ere, 1996ko lehenengo hilabetea erabat oparoa izan da. Hiru haur jaio dira urtarrian. Iazko urtearen bukaeran jaio ziren haur gehienak mutilak badira ere, aurten jaio direnak, guztiak neskak dira.

Urtarrilaren 7an, Jose Angel Montecelo eta Julia Lobatoren Enara alaba jaio zen. Ondoren, Juan Urkiola eta M. Inmaculada Soralezaren Eider alabaren txanda izan zen. Eta hirugarren, urtarri-laren 22an, Oihane Murua De la Mata etorri zen mundura. Bere gurasoak Duxi eta Mari Angeles dira. Guztiei zorionik beroenak.

Iazko azken hiru hilabeteetan ere beste 4 jaiotza izan ziren. Urriaren 5ean, Larraitx Garenabarrena Elorza jaio zen. Bere gurasoak Fernando Xabier eta Miren Ederne dira. Azaroaren 1ean, Alvaro de Carballo Fernandez jaio zen, Isaac eta M. Mercedesen semea. Azaroaren erdian Adrian Illarramendi Elosegiren jaiotza ekarri zigan, bere gurasoak Carlos eta M. Elena dira. Urteak ekarri zigan azken haurra Ixchel Mujika Jauregi izan zen, Angel Mari eta Maria dira bere gurasoak.


Ibilgailuen zerga

Udalerrri honetako zergadun guztiei ja-

kinarazten zaie, 1996. urteko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren Errolda onartua izan dela eta jendarean jartzen dela, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabete epean, interesatuek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak Udal bulegoetan aurkez ditzaten.

Era berean, urtarriaren 19tik otsailaren 19ra, aipatutako zergaren kobreaktari ekingo zaiola jakinarazten da, epe hori igaro ondoren, ordainagiri guztiei % 20aren gaitzargua ezarriko zaielarik.

 Aitziber Murua



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran
ZERAMIKAK

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

Karta txapelketak Atsedenen

Atsedeen Jubilatutako Elkarteak antolatuta, aste honetan hasi dira herriko jubilatuen arteko mus, tute eta punttu txapelketak. Musean 10 bikotek eman dute izena, tutean zortzik, eta punttuan beste zortzik. Punttuko 4 bikote emakumezkoenak dira, musean eta tutean, ordea, ez dira apuntatu. Txapelketak 3 aste iraungo du, eta sail bakoitzeko irabazleak eskualdeko txapelketara pasako dira. Iazko irabazleak, musean, Felix Oiarbide eta Arturo Gonzalez izan ziren, tutean, Ximon Garaialde eta Joxe Urbizu, eta punttuan, berriz, Tere Andueza eta Luisa Aldanondo.

Oxiña portalari txukundua

Herriko beste hainbat inguru txukundu eta berrizatu diren bezala, oraingoan Oxiña Portalari tokatu zaio. Momentuz, arkua ez da bere jatorrizko neurrira estutuko, eta zorua ere ez zaio aldatuko. Arkua eta ingurua, Zerkalde aldetik, Galparsoroneko baratzaraino txukunduko da, tartean dauden garai bateko etxeen jatorrizko harriak, batez ere..

Haize-orratz eta tximisorratzak

Elizako teilatuaren konponketa aprobetxatuz, haize-orratz eta tximisorratz berriak jarri dituzte kanpandorrean. Tximisorratzak ez zuen funtzionatzen, eta kendu egin dute. Hau, 1884an jarritakoa zen txapitolarekin batera, eta garai hartan, 11.000 erreal (2.750 pezeta) kosta ziren. 11 metroko altuera zuen, oinarrian 11 zentimetroko diametroa eta puntan 2koa, pisua, berriz, 168 kilokoa. Berria txikiagoa da, 5en bat metrokoa. Lurrera konektatua dagoen kobrezko kablea ere, zaharraren pasabideaz baliatuz, berria jarri da. Lurra, bi norabidetara eman zaio, bata zeharrera, eta bestea, zuzen behera.

Haize-orratza ere izorratua zegoen, aspalditxotik falta baitzuen isatsa. Altxairu erdoilteztinezko beleta, Kortaberriko Xabier Lardizabalek egin du, 1,30 metro eta 8 kilo inguru ditu. Elizakoaz gain, Komentuan eta Ospitalean daude haize-orratzak, biak ere, funtzionamenduan.

Santa Ageda

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, urtero bezala, Elorrikoak kantu-eskean

aterako dira. Aste bukaera tokatzen denez, baserriak pasako dituzte. Bertsolariak arituko dira koplari trikitixa lagunduta.

Laiotz Herri Eskolako 8. mailakoak ere, kurtso amaierako bidaiarako arituko dira kantu-eskean kaleetan zehar.



Goian: Maite Telleria Alberdi. Beheran: Idiazabalgo krosetan parte hartu zuten segurarrak.



Atletismoa

Pasa den urtarrilaren 14an, Anoetako Belodromoan, pisu jaurtiketan, Maite Telleria, Gipuzkoako txapeldun eta Euskadiko txapeldunorde geratu zen kadete mailan. Hanka bihurritu baten ondorioz, ondo entrenatu gabe, 3 kiloko bola, 9,59 metrora jaurti zuen. Maitek 15 urte beteiko ditu martxoan, eta Ordizia Kirol Elkartekoa da. Kirol honetan lortu dituen emaitzak ez dira nolanahikoak:

- 1993an, alebinetan, Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun, 2 kiloko bola 9,50 metrora jaurtiz. Gipuzkoako txapeldunorde tetratlonean. Gipuzkoako 4. 60 metroan. Euskadiko txapeldunorde 60 x 4 errelebotan.

- 1994an, infantiletan, Gipuzkoako eta Euskadiko 3. 2 kiloko bolaz.

- 1995ean, infantiletan, Gipuzkoako 2. eta Euskadiko txapeldun, 2 kiloko bola 9,51 metrora jaurtiz.

Hala ere, bere errekorra 3 kiloko bolaz, 9,71 metrokoa da.

Bestalde, urtarrilaren 20an, Ordizian, alebin mailan jokatu ziren eskolarteko kiroletan, aipatzekoa izan zen, Garbiñe Etxezarretak lortutako garaipena 2.000 metroan, 8,12 minutuko denboraz.

Urtarrilaren 28an, Idiazabalgo Herri Krosetan, 34 herritarrek parte hartu zuten, horietatik 31, Xabier Intxaustik eta Aitziber Etxeberriak gidatutako Laiotz Herri Eskolako neska-mutikoak. Helduetan, berriz, Lurdes Kerejeta, Mari Karmen Elorza eta Zeles Sodupe. Aipatzekoak, alebinetan, Garbiñe Etxezarretaren 2. postua 1.000 metroan, eta Iker Agirrezabalen 6. 1.100 metroan. Benjaminetan, Eneko Agirrezabal 3. geratu zen 500 metroan.

Pelota

Klubaren Arteko VI. Euskal Ligan, otsailaren 2an, gaueko 10:00etan, Iñaki Artolak eta Ibon Etxeberriak Lezama taldekoen kontra jokatu dute Baratzeko Pelotalekuan. Aurrez, mutikoen arteko bi partidua jokatu dira.

Zapatuan, berriz, Ibon Etxeberria Idiazabalen izango da, Haritz Artolarekin batera, Koka Gelbenzuren kontra aritzeko. 19:00etatik aurrera, Igarondo Pelotalekuan.

Futbola

Pasa den asteburuko emaitzak:

- Rejionalak: Eibarko "Beti Sutan"eri 6-0 irabazita, 1go amaitu dute ligako lehen fasea. Kategoriko 3 multzotako 10 hoberenak igoera fasea jokatu dute, eta horietatik 6 igoko dira Rejionalak 1go mailara.
- Jubenilak: 4-0 irabazi zuten Zarauzko Antonianoen kontra. 1go doaz.
- Infantilak: igoera faseko 1go partiduan, Hernanik 2-1 Aizkorrik.
- Kadeteek, 4-0 galdu zuten Ondarroan eta 3. daude.

Aste honetan etxean:

- Kadeteak: zapatuan, 3an, 17:15etan, Idiazabalen kontra.
- Infantilak: jaien, 4an, goizeko 11:30etan, Irungo "Dunboa"ren kontra.

 Joseba Telleria

"IPARRA-HEGOA" ASTE KULTURALA OTSAILAREN 5etik 11ra Iparraldetik Hegora, Seguratik Goierrira

Segurako Elorri Kultur Elkartek antolatuta, Iparraldeko egoera zertxobait gehiago ezagutu asmoz, "Iparr-Hegoa" lemapean, Aste Kulturala antolatu da otsailaren 5etik 11ra. Asteburuko ekitaldiak Seguran zentralizatuko badira ere, gaiek oihartzun handiagoa merezi dutelakoan, astebarruko hiru egunetan izango diren hitzaldiak, Goierriko beste zenbait herritara ere zabalduta dira.

Ekitaldi hauek, Elorrikoek Iparraldeko Berttoli Elkartekoekin aspalditxotik dituzten harremanei esker gauzatu dira. Elkar-lana eta beraiek azaldutako borondatea, ezinbestekoak izan dira guzti hau aurrera atera ahal izateko. Honi esker aurrekontua jaistea lortu bada ere, hau, milioi ingurukoa da. Zuloari aurre egiteko, errifak ateratzear gain, Kutxara eta Goimenera ere jo da; Segurako Udalak, berriaz, dirulaguntza emateaz gain, azpiegituran ere laguntza eskei-niko du.

Iparraldeaz Segura Irratian

Aste guztian, 12:00etatik 12:40era, programazio berezia izango da Iparraldeaz. Santos Beloki, bertan hainbat urtetan apaiz izandakoa eta Lierni Elorza, partehartzaile izango dira. Saioa bukatzean gainera, gaiari buruzko lehiaketa egingo da.

- Astelehena, otsailaren 5a: "Egoera musikala Iparraldean". Solaskidea: Pantzo Irigarai. Iparraldeko musika jarriko da.

- Astearte, otsailaren 6a: Aste Kulturalaren antolatzaileekin elkarrizketa. Elorri K.E.koak Markel eta Luli Telleria eta Beñat Elizondo "Berttoli" Elkartekoa.

- Asteazkena, otsailaren 7a: "Egoera



Aste Kulturean zehar izango diren hizlarietako batzuk, ezkerretik eskubira: Beñat Elizondo, Panpi Saint Marie, Jakes Saraillet eta Richard Irazusta.

politikoa Iparraldean". Solaskideak: Jakes Saraillet eta Richard Irazusta, EMAko kideak.

Otsailaren 7an Zaldibian

Hitzaldia: "Egoera politikoa Iparraldean". Hizlariak: Pello Claverie eta Jakes Saraillet, EMAko kideak. Kultur Etxean, iluntzeko 20:30ean.

Otsailaren 8an Beasainen

Hitzaldia: "Hezkuntza-Hezkuntza Iparraldean". Hizlariak: Gexan Alfaro, Seaskako lehendakari ohia, eta Jone Tremont, Seaskako irakaslea. Udaletxean, iluntzeko 20:30ean.

Otsailaren 9an Zerainen

Hitzaldia: "Baserria bizibide Iparraldean" Hizlariak: Frantxoa Hirigoyen ELBE nekazarien sindikatuko kidea, eta Alberto Aldasoro, EHNEko kidea. Kultur Etxean, iluntzeko 20:30ean.

Otsailaren 10ean Anje Duhalde Seguran

Musika jaialdia: Anje Duhalde eta Iparraldeko "Skunk" taldea. Segurako Baratze Pelotalekuan, 23:00etan. Sarrerak: 600 pezetan, Elorripe tabernan. Ondoren, Lapurtarrez osatutako

- Osteguna, otsailaren 8a: "Hizkuntza-Hezkuntza Iparraldean". Solaskideak: Jone Tremont, Seaskako irakaslea, eta Eneko Bidegain, Seaskako ikasle ohia.

- Ostirala, otsailaren 8a: "Nekazaritza, Abeltzantza eta Nekazalturismoa Iparraldean". Solaskidea: Panpi Saint Marie, artzaina eta ELBE nekazarien sindikatuko kidea.

- Zapatua, otsailaren 10a: Anje Duhalderi elkarrizketa.

- Jaia, otsailaren 11a: Seguran burutuko den Iparralde eta Hegoaldeko artisau eta nekazal produktoen azokari buruzko informazioa, zuzenean.

"Kuxkuxtu" txaranga herrian zehar.

Otsailaren 11n "Iparr-Hegoa" azoka Seguran

- 11:00etan hasita, Iparralde eta Hegoaldeko artisau eta nekazal produktoen azoka. Bertan izango dira, Iparraldeko "Idoki" Nekazari Elkarteko stand-a, Zerain Proiektuko eta Goierriko beste zenbait. Artisauak Goierrikoak.

Herri Urratseko materiala ere egongo da.

- Gerizondoaren landaketa. Iparraldetik ekarrita, harremanen sinbolo bezala eguerdi partean landatuko da.

- Eguerdiko 13:00etan, "Primadera" Arbonako Dantza Taldearen saioa herriko plazan.

- 14:30etan, Herri Bazkaria, Aterpetxean. Tikeak aurrez salgai Elorripen, 1.500 pezetan.

- 18:00etan "Mutxiko Dantza", nahi duenak parte hartuz, herriko plazan.

Eguraldi txarra balitz, plaza inguruko aterpeetan moldatuko litzateke azoka.

Idoia Zubiarrain olaberritarra Alemanian

Alemania hegoaldean dago Idoia, Ulm-en, idazkari eta itzultzaile lanak egiten. Ulm eta Ulm-berria Danubio ibaiak zatituta daude eta bien artean 80.000 biztanle inguru dituzte. Bi urte t'ardi daramatza bertan. 26 urte ditu eta "Secretariado de dirección" Donostian ikasi zuen.

Ikasketak bukatu ondoren Londresen egon zen lanean. Idoiak esan digunez, "neri beti asko gustatu zaizkit hizkuntzak. Ondoren Alemanira joateko gogo nuen, baina perezia ematen zidan berriro kanpora joatea. Enteratu nintzen Iruñean Volkswagen-en anpliazioak ari zirela egiten eta bertan enpresa alemaniar bat itzultzaile baten bila ari zela". Honela hasi zen beraiekin lanean. Proiektua bukatu zenean Alemanira joatea proposatu zioten. Haseran urte beteko kontratua zen, baina bertan jarraitzen du. Orain, esportazio eta inportazioko ikasketa batzuk egiten ari da. "Momentuz han nago, gustora. Ikasketak berehala bukatuko ditut eta, lanean, kontratu fijo egin didate. Nere lan ideala izango zen, hemengo enpresa bat Alemaniarekin harremanak dituen, alemaniarra eta ingelesa erabiliaz. Baina, momentuz han nago eta ez dakit besterik", dio gerorako asmoez hitz egitean.

Hasera gogorra izan zen Idoiarentzat: "Londresetik etorri eta ingelerara ohituta nengoen, alemaniera zerbait ikasia nuen, gramatika etabar, baina nahiko ahaztua nuen. Dena alemanieraz egitea gogorra izan zen, hitz teknikoekin zailtasuna izan nuen. Erresponsabilitate handia zen, karta bat



idazteko edo edozertarako. Gure bulegoan gazte asko dago eta «zerbait ulertzen ez baduzu galdetu eta lagunduko dizugu» esaten zidaten beti".

Alemaniarrak eta euskaldunak

Alemaniarrak gu baina itxiagoak direla esaten da, baina, beraien giroan sartuz gero, oso jatorrak direla iruditzen zaio olaberritarrari. "Nik batez ere faltan botatzen dudana kaleko giroa da. Horrek ez du esan nahi ez garenik irtetzen, baina "poteo" giro hori falta da. Geta dendak ixten dituzte eta kalea hutsik geratzen da. Taberna giroa desberdina da, tabernak handiagoak dira, bertan garagardoa egiten dute, igual 2 ordu egoten zara taberna batean, hizketan. Bertako musika, Tirolekoa, jartzen dute, polita da baina desberdina".

Ulm Alpeetatik oso gertu dago, inguru oso polita da. Bizikletan ibiltzeko bide bereziak daude, kilometro asko

egin daitezke bide hoietatik. Egurraldia hotzagoa da, "adibidez orain lagun batek deitu dit eta zeropon 18 gradu omen dituzte. Baina, hori ere ez da normala, normalean zeropetik 4 gradu edo izaten dira. Udan nahiko bero egiten du".

Alemania bateratua

Ekialde eta mendebalde elkartu ondoren ezberdintasun handia dago beraien artean. Batasuna eman zenean, unibertsitatean ospatu egin zuten irakasle alemaniar batekin. "Bertara joandakoan, desberdintasuna dago, ekialdekoa ez da aurreratu, lehen denek lana zuten, orain lanik gabe daude, prezioak igo egin dira, pobreagoak, gutxiago direla uste dute. Txisteak entzuten dira, antzematen da, eta Berlin aldean pentsatzen dut diferentzi handiago izango dela. Orain proiektu asko daude ingenieritza aldetik ekialdean, dena berri nahi dute", azaldu du Idoiak.

Arrazakeriaren inguruan berri asko iristen zaizkigu Alemaniatic. Baina, Ulm herri handi bat da eta Idoiak ez du asko entzuten. "Guk ohitura ezberdinak ditugu, baina, ez zaigu hain zaila egiten bertara ohitzea. Turkiarrekin, berri, badago arrazakeria. Oso ezberdinak dira, jakeraz, jateko eran, kulturen. 20 urte bertan eraman arren alemanierarik ez dakiten turkiarrak ezagutzen ditut. Hori tristea da, ez amoldatzea. Noizbehinka entzuten da manifestazio arrazistaren bat dagoela, badago gorroto bat".

Mikel Albisu

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g 888824
BILTEGIA: Salvatore Industrialdea. 886070
BEASAIN



Tfona: 885500 ORDIZIA



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO



1979an jaioetako zegamarra

Ainara Arrieta eta Irune Urbitartek bidali dute argazkia. 5-6 urte zituztenean, Ikastolako terrazan aterata dago.

Zutik: Maite Lekuona, Leire Igoa, Izaskun Igoa, Eider Larrea, Amaia Perez, Irune Urbitarte, Aintzane Gonzalez, Ainara Arrieta eta Ainhoa Txurruka.

Makurtuta: Oihana Zubizarreta, Aitor Urbizu, Xabier Morillo, Mikel Gorospe, Jon Urteaga, Asier Arkonada, Aloña Gorospe, Unai Izagirre, Argoitz Toledo eta Miren Urbizu.



Senpere Merkatal Gunea
☎ - Faxe: 16 19 90 BEASAIN

Egur laminatuzko leihoak •
P.V.C. • Aluminio • Poliuretano •
Ateak • Pertsianak • Gortinak •
Parket flotantea

Karlos I Etorbidea, 2 - behea
☎ 46 22 66 Faxe: 46 22 24 DONOSTIA

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

GOIERRIKO SAGARDOTEGIAK

AULIA.....☎ 80 60 66

Legorreta

BEGIRISTAIN ...☎ 65 28 37

Ikaztegieta

ETXE-ZURI.....☎ 88 20 49

Olaberria

KATTALIN.....☎ 88 92 52

Beasain

KORTA☎ 88 71 86

Gabiria

ÑAÑARRI☎ 65 40 05

Abaltzisketa

OLAGI☎ 88 77 26

Altzaga

OTATZA☎ 80 17 57

Zerain

OTENE☎ 88 98 48

Gaintza

TXERTAKADI☎ 16 13 59

Zaldibia

TXIMISTA.....☎ 88 11 28

Ordizia

URBITARTE☎ 18 01 19

Ataun

ZALBIDE☎ 65 21 76

Abaltzisketa



JASO EQUIPOS DE OBRAS S.A.

Garabi garaiak eta kargagailuak eraikuntzaren beharrezane
aplikatutako teknologia modernoa

- ◆ Fabrikazioa
- ◆ Salmenta
- ◆ Alokatzeara

☎ 18 70 00 - Faxe 18 70 20
N-1, 415 Kma. IDIAZABAL



Zuen seme-alabentzako
aukerarik
sendoena

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ESO

Zuen seme edo alaba OHO-ko 6. edo 7.ean badago, hurrengo urtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (ESO)-ko lehenengo eta bigarren urtea egitea dagokie.

Goierriko Lanbide Eskolan duzue aukerarik onena:

- ✓ Ziklo guztia dohainik.
- ✓ Ikasketak ikastetxean bertan jarraitzeko aukera:
 - 1.-Unibertsitatera bideratutako Batxillergoetan.
 - 2.-Lanbide Heziketaren bitartez zuzenean lanpostura.
- ✓ Kalitatezko heziketa esperientziadun ikastetxea.

**BATZUEK, TITULUA ESKEINIKO DIZUTE
GUK, TITULUAZ GAIN, LANPOSTUA**

Aurreizenematea: Otsailaren 1etik 20ra

ESCUELA PROFESIONAL DEL GOIERRI

La Granja Auzoa, z/g. - 20.240 ORDIZIA (Gipuzkoa) - telf. (943) 880062 . Fax. (943) 888351

